

IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUEI aholku emateko gidaliburua

ARCE PROGRAMA - "DOS MARES" PROIEKTUA



Proyecto
DOS MARES

IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUEI
aholku emateko gidaliburua

ARCE PROGRAMA – “DOS MARES” Proiektua

ISBN: 978-84-695-9881-8

Legezko gordailua: SS 491-2014

Jaitsi:

<http://issuu.com/bgg01/docs/aholkularitza>

<http://es.calameo.com/read/00318311359399ec449b0>

Donostia - San Sebastián

Apirila 2014



"Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko gidaliburua" honako egileek egin dute:

DONOSTIAKO BERRITZEGUNEko kideak

<http://g01.berritzeguneak.net>

Ana María Extramiana Cameno

María Lourdes Iriarte Olarra

María Soledad Uria Jauregui

VALENTZIAKO CEFIREko kideak

<http://mestreacasa.gva.es/web/cefirevalencia>

M^a Eugenia Giménez Ortiz

Vicente Palomar Salvador

M^a José Quilis Llopis

Esther Roca Campos

M^a José Rodes Sala

Raquel Simó Meléndez

SANTANDERKO CEPeko kideak

<http://www.cepsantander.educantabria.es>

Pedro Luis Díez Velasco

Concha González González

Jesús Rodríguez Roldán

SERVEI EDUCATIU CIUTAT DE L'HOSPITALETEko kideak

<https://sites.google.com/a/xtec.cat/sehospitalet/>

Diego Araque Llopis

Jordi Caballé Mateu

Montserrat Campreciós Pino

M^a Teresa Rovira Calduch

Artur Vidal Sapé

ZERBIKAS FUNDAZIOAko kidea:

Rafael Mendia Gallardo

Kolaboratzailea: Begoña Martínez Domínguez UPV/EHU

Irakurle kritikoa: José Luis Marañón Olarra

Hezkuntza Ministerioaren ARCE programako diru laguntzaz argitaratua, DOS MARES proiektuaren esparruan.

Itzulpena:



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1.- IKASKUNTZA-ZERBITZUA	8
2.- AHOLKULARITZA IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUETAN	14
3.- AHOLKULARITZARAKO EREMUAK IKASKUNTZA-ZERBITZUAN	17
1go EGOERA: IKASKUNTZA-ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HEDAPENA	19
2. EGOERA: HEZIKETA-JARDUNBIDE EGOKIEN IDENTIFIKAZIOA	22
3. EGOERA: PROIEKTU BATEAN LAGUNTZEA	25
4. EGOERA: IKASKUNTZA-ZERBITZUA IKASTETXEAREN PROIEKTUAN	29
5. EGOERA: PROIEKTUAREN EBALUAZIOAN LAGUNTZEA	32
4.- LEGERIARI ETA ARAUDIARI LOTUTAKO ALDERDIAK	35
5.- BESTE ERAGILE BATZUEKIN LANKIDETZAN. SARE-LANA	37
6.- BALIABIDEAK.....	39
7.- ERANSKINAK	43

“Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko gidaliburua” duzu eskuartean.

Ikaskuntza-zerbitzua metodologia berria ez bada ere, teknika/metodo eraginkorra da esperientzian oinarritutako hezkuntza garatzeko. Esanahi sakona ematen dio hezkuntzari, gizabidea irakasteko lagungarria da, bizitza guztirako inplikazio soziala sustatzen du, komunitateen ongizate kolektiboa bultzatzen du, eta horrenbestez, gizarte solidario eta bidezko bat eraikitzea errazten du.

“Aholku ematen laguntzea” da lan honen eginkizuna, eta benetan baliagarria izatea espero dugu, neska-mutilen hezkuntzan konprometitzen diren hezitzaileei bidea erakusteko eta laguntzeko, gazteen gaitasun pertsonal eta sozialen garapen osoa bideratzeko zereginetan, haien jatorria, egoera, gaitasunak, kultura eta abar edozein izanda ere.

Aholku emateko esku-hartzearen oinarrian dago gure ikasleen oinarritzko gaitasunak garatzea¹. Testuinguru horretan, honako galdera hau egin dezakegu: Neska-mutilek oinarritzko gaitasunak ikastea, garatzea eta sendotzea eskolaren zeregin eskusiboa da ala komunitate guztiaren inplikazioa behar du?² Gaitasun horiek ez al lirateke irakatsi eta garatu behar eskolan, familian, erakundeetan, gizarte-entitateetan... komunitate bakoitza komunitate hezitzaile izanik? Interesgarria izango litzateke ikaskuntza-eredu formal, ez-formal eta informalaren arteko mugak pixkanaka eraistea, guztien uztartzea eta bateratzea bideratzeko, pertsona guztiei bizitza guztian heziketa-erantzun hobea emate aldera. Horren haritik, zeregin hori errazten duten giltzarri eta estrategiak dakartza ikaskuntza-zerbitzuak.

Gure neska-mutilen herritartasuna aitortzen dugu, eskubideak eta betebeharrak dituzten subjektu diren aldetik, hazteko eta heltzeko prozesuan herritar-erantzukizunak beren gain hartzeko gaitasuna duten pertsonak baitira. Prozesu hori mailaz mailakoa da, eta azken xedea da neska-mutil horiek erantzukizun eta betebeharrak pertsonal eta sozialak beren gain hartuko dituzten pertsona helduak izatea eta herritartasun aktiboa gauzatzea.

Gidaliburu honen asmoa izan da aholkulariaren zeregina ardatz hartzea. Ikuspegi horretatik, aholkulariaren esku-hartzea ulertzen da ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzearren kontuan hartu beharreko alderdiak, parte hartzeko moduak eta baliabideak proposatzen, iradokitzen eta adierazten dituen profesional baten jardura gisa.

Halaber, aholkularitzaren zeregina ulertzen da hezkuntzaren aldaketa dinamizatzen eta sendotzen duen instantzia gisa; izan ere, ikastetxearen bizitza guztian eragiten du, arlo guztietan. Horren haritik, ikastetxearen aldaketan laguntzen du, ezagutza sortzeko bidean lankidetzan jarduten duen erakunde bihur dadin, gizarte-justiziaren aldeko konpromiso argia oinarri hartuta.

Azken finean, hezkuntzaren berrikuntza izan dadila hezkuntza-eragile guztien jardunaren helburu, eta konpromiso horren ildotik, gizartearen aldaketan aurrera egin dezatela, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin.

¹ Europako Parlamentuaren legegintzako ebazpena, ikaskuntza iraunkorrerako giltzarritzko gaitasunei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak egindako aholku-proposamenari buruzkoa (COM(2005)0548 – C6-0375/2005 – 2005/0221(COD))

² *Las competencias clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria*. Eurydice. Hezkuntzari buruzko informazioaren Europako sarea. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Idazkaritza Nagusia. Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa (CIDE). Madril, 2002. 17-22 or.

1.- IKASKUNTZA-ZERBITZUA

IKASKUNTZA-ZERBITZUARI BURUZKO GILTZARRIZKO 6 ALDERDI



1.1.- ZER DA IKASKUNTZA-ZERBITZUA?

Ikaskuntza-zerbitzua bi arlo hauek integratzen dituen metodologia da: alde batetik, edukien, trebetasunen eta balioen ikaskuntza, eta bestetik, komunitateari zerbitzu ematea. Horrenbestez, ikaskuntza eta komunitatearen aldeko zerbitzua uztartzen ditu ondo egituraturako proiektu bakar batean. Hartara, parte-hartzaileen prestakuntza gauzatzen da

ingurunearen benetako premiei erantzuteko lan eginez, ingurune hori hobetzea helburu hartuta.


Ikaskuntza-zerbitzua onura soziala duen heziketa-proiektua da. Ikaskuntzaren eta zerbitzuaren arteko interakzioak bataren zein bestearen eraginak areagotzen ditu. Ikaskuntzak hobetzen du komunitateari ematen zaion zerbitzua, eta komunitate

horretako bizi-kalitatea eta ekitatea areagotzen dira, **Garapen - esparruak** errealitatera ekintza gisa transferitzeko aukera ematean.



1.2.- ZER OSAGAI DITU?

Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza-eredu bat da, eta osagai hauen integrazioaren bidez hartzen du zentzua:



- **Ikaskuntza.** Hezkuntza-asmo esplizitua dauka, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eskuratzearekin lotua. Hezkuntza-esparruan, ikaskuntzen erreferentea hezkuntza-curriculumean ageri da, dimentsio guztietan. Curriculumarekiko loturak garbiak izan behar dute, eta arlo bakoitzari dagozkion gaitasunetan oinarrituta eginak.

Bizitzarako ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko prozesua da: ikaskuntza-zerbitzuak ikaskuntza-prozesu kontziente, planifikatu eta sistematikoak garatzen ditu, eta prozesu horien bidez, zerbitzu-zereginak eduki eta gaitasun garrantzitsuekin lotzen dira, hezkuntza formalari zein ez-formalari erreparatuta. Horrenbestez, ikaskuntza eta herritartasun aktiboaren gauzatzea uztartzen dituen prozesua da.

- **Zerbitzu solidarioa.** Protagonisten interesa herritartasun aktiboaren aldeko zerbitzura bideratzen du. Ikaskuntza-zerbitzuak gizartearen benetako premiei ematen zaien erantzun gisa ulertzen du zerbitzua: ingurumena babestea, kultura-ondarea berreskuratzea, desabantailan dauden talde sozialei laguntzea eta abar. Zerbitzuak zenbait aukera ematen ditu: alde zuzeneko ezagutzak errealitatean aplikatzea, galdera intelektual eta gizalegezkoak egitea, eta ikaskuntza berriak eragingo dituzten esperientzien iturri izatea.


- **Metodo pedagogiko aktibo eta gogoetatsua.** Ikaskuntza-zerbitzuaren pedagogiak oinarri hauek ditu: esperientzia, parte-hartze aktiboa, hausnarketa, diziplinartekotasuna, arazoak konpontzea eta lankidetzak.

- **Sare-lana.** Ikaskuntza-zerbitzuak sare-lana behar du, hezkuntza-erakunde formalen jarduna koordinatzeko zerbitzuaren bidez eragin nahi den errealitatean esku hartzen duten gizarte-erakundeekin. Aliantza horren bidez, hezkuntza-erakundeek gizarte-ingurura zabaltzeko aukera dute, eta gizarte-erakundeek prestakuntzan eragiteko aukera dute. Horrenbestez, hezkuntza-erakundeek ekintza osatzen du ikaskuntza-zerbitzuak, *herri hezitzailea* kontzeptuaren ildotik. Izan ere, ikuspegi horren arabera, herritar guztiek prestakuntza-ekintzan dihardute.

- **Eragin formatzailea eta eraldatzailea.** Ikaskuntza-zerbitzuak kontzeptuen, emozioen eta jokabideen alorreko edukietan eragiten du; zenbait eremutan aplika daitezkeen gaitasunak garatzen ditu, pentsamendu kritikoa eta gizalegezko erantzukizuna bultzatzen ditu, garapen pertsonal eta soziala bultzatzen ditu, eta gizarte-ingurunea eraldatzen laguntzen du.

1.3.- ZER OINARRIZKO BALDINTZA BETE BEHAR DIRA IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUAK GARATZEKO?

Deskribatutako ezaugarriek hainbat aukera ematen dituzte ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak diseinatzeko garaian. Proiektu horiek bost ezaugarri komun dituzte, ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak abian jartzeko oinarrizko betekizun direnak: ikaskuntza, zerbitzua, proiektua bera, parte-hartze aktiboa eta hausnarketa.



- **Ikaskuntza.** Sistematizatua izan behar du, eta lotuta egon behar du, alde batetik, curriculumarekin, eta bestetik, eman nahi den zerbitzuarekin. Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu kontziente, planifikatu eta sistematikoak garatu behar ditu, esperientziaren bidez gauzatuko direnak, eta edukiak lotu behar ditu aztertu eta hobetu nahi den inguruaren premiei erantzun zuzena ematearekin. Prozesuaren aurretik, egiten den bitartean eta ondoren protagonistek ikasiko dutena zehaztu behar du. Ikaskuntza-zerbitzuak edukien diziplinarteko lantzea eta oinarrizko gaitasunen sustapena bideratzen du. Azken finean, egoerak eta arazoak konpontzeko eta benetako proiektuei ekiteko egokieran jartzen ditu ikasleak, eta prozesua garatzen den heinean, gaitasunak gauzatzeko eta gizartearen zerbitzuan jartzeko aukera dute.
- **Zerbitzua.** Inguru hurbileko, gertuko zein orokorreko benetako beharrei erantzun behar die, inguru hori hobetzea helburu hartuta. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuek alteritate eta elkarrekikotasun printzipioak dituzte inspirazio-iturri. Horrenbestez, ikaskuntza-zerbitzuaren eremuan gauzatzen den zerbitzuak ekintza asistentzialistak saihesten ditu eta inpaktu formatzaile eta eraldatzaile bat eragiten die protagonistei, ikastetxeko giroari eta

jardunaren inguruneari. Horregatik, hezkuntza-erakundeen eta gizarte-entitateen arteko sare-lana behar-beharrezkoa da.

- **Proiektua.** Asmo pedagogiko argia ezinbestekoa da, bai eta inplikaturako eragile guztiek planifikaturako eta ebaluatutako heziketa-proiektua ere. Horrenbestez, ikaskuntzak ez du izan behar itxura hutseko jardura, ez eta ustekabeen edo tupustean gertatzen dena ere, eta ez da nahastu behar berez ikastea dakarten egoerekin. Ikaskuntza-zerbitzuan kalitatezko zerbitzua eman behar da, eta ekintza horietatik eta eragiten dituzten bizipenetatik dimentsio pedagogikoa ateratzeko aukera sortuko du.

- **Parte-hartze aktiboa.** Ikaskuntza-zerbitzuko esperientziak parte-hartze aktiboan eta parte-hartzaile guztien protagonismoan oinarritu behar dute, proposamen informatibo soilak alde batera utzita.

Oinarri horren gainean eraikitzen dira ikaskuntzak, eta oinarri horrek bideratzen du, hain zuzen, ikaskuntzak benetan esangarri izatea. Protagonistek proiektuaren fase bakoitzean esku hartu behar dute: premien detekzioan, hobetzeko proposamenen diseinuan, etab. Konpromiso horren intentsitatea egokitu behar da, jakina, protagonisten adinaren, heldutasunaren eta gaitasunen arabera.

- **Hausnarketa.** Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak egoki abiarazteko, une bakoitzean egiten dutenaren eta horrek dakarren onura sozialaren benetako kontzientzia hartu behar dute parte-hartzaileek.

Ikaskuntza-zerbitzuan jarraitutako prozesuari, egindako ikaskuntzei eta zerbitzuaren eraginari buruz hausnarketa egitea ezinbestekoa da. Hausnarketa horrek bideratzen du ikaskuntza berriak integratzea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko egokitzea. Aldi berean, jarrera paternalistak gainditzeko lagungarria da, protagonistak ohartzen baitira ematen duten zerbitzuari esker asko ikasten dutela.

1.4.- ZER EREMUTAN GAUZA DAITEZKE IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUAK?

Proposatutako eremu-zerrendan adibide batzuk baino ez dira jaso. Eremu bakoitzean prozesu horretan parte har dezaketen erakunde espezializatuak daude.

Parte-hartze komunitarioa

Politika publikoetan eragiteko proiektuak, eta auzoan zein hurbileko ingurunean parte hartzea sustatzeko proiektuak, gizalegezko konpromisoa eta biztanleen bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzea helburu hartuta. Hainbat bitarteko baliatuta gauza daiteke: hedabideak, kultura-ekimenak, prozesu parte-hartzaileak, etab.

Solidaritate- eta lankidetzaproiektuak

Giza eskubideak defendatzeko eta gai horri buruzko sentsibilizazioa areagotzeko proiektuak, irismen handiko nazioarteko eremuko kausa solidario eta humanitarioak.

Beste pertsona batzuei laguntzea

Premian egon daitezkeenei laguntzeko proiektuak: baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboak, etorkinak, desgaitasun fisiko zein psikikoren bat duten pertsonak, etab.

Eskolatzean laguntzea

Hezkuntzan eta prestakuntzan laguntzeko proiektuak. Ingurunea ezagutzea eta hezkuntza

indartzea, ikasteko motibazioa, helduen hezkuntza iraunkorra, etab.

Osasuna sustatzea

Osasunaren alorreko prebentzio-proiektuak, bizimodu osasungarriak sustatzea, droga-mendetasunen prebentzioa, gaixo dauden pertsonen laguntzea, etab.

Belaunaldien arteko trukea

Adin desberdinetako kolektiboak elkar hurbiltzea helburu duten proiektuak, elkar ezagutzea errazteko, eta ezaupideak, ikaskuntzak eta trebetasunak trukatzeko bideratzeko.

Ingurumena

Ingurumenaren kontserbaziora eta ingurumen-hezkuntzara bideratutako proiektuak: materialak birziklatzea, ingurumen-auditoriak egitea, natura- eta hiri-ondarea garbitzea eta kontserbatzea, energia aurrezteak, etab.

Kultura-ondarea

Kultura-ondarea kontserbatzeko eta lehengoratzeko proiektuak, eta kultura-tradizioak berreskuratzea eta hedatzea helburu dutenak.

1.5.- ZER IKAS DAITEKE IKASKUNTZA-ZERBITZU PROIEKTU BATEN BITARTEZ?

Ikaskuntza-zerbitzuak zentzua dauka edozein hezkuntza-erakundetan; izan ere, proposatutako helburu pedagogikoen hobekuntza da haren ekarpen nagusietako bat. Ikaskuntza-zerbitzuak kalitate handiagoa ematen die ikaskuntzei, erakunde-proiektuari zentzua ematen dio, diziplinarteko lana bideratzen du, motibazioa areagotzen du, eta protagonisten errendimendua hobetzen du. Ikaskuntza-zerbitzuak, berrikuntza metodologikoa bideratzeaz gain, benetako hezkuntza integralaren alde egiten du.

Ikaskuntza-zerbitzuak arazoak konpontzeko eta proiektuak gauzatzeko egoeretan jartzen ditu ikasleak, hartara haien gaitasunak aktibatzen. Sortzen dituen testuinguruei esker, ikasleek protagonista aktibo izateko, trebe sentitzeko eta gaitasunak gizarte-premia baten zerbitzuan jartzeko aukera dute; horrenbestez, gizartearen eraldaketan eragiteko egokiera dute.

Beharbada, ikaskuntza-zerbitzuaren ezaugarri garrantzitsuenak da ikaskuntzek gaitasunen garapena bideratzen dutela, benetako egoerak eraginkortasunez konpontzeko abian jartzen diren gaitasunak, trebetasunak, ezagutzak eta balioak integratuz.

Europar Batasunak proposatzen dituen oinarritzko gaitasunek herritartasun arduratsua aktibatzen dute eta funtsezko hezkuntza-erreferente dira. Gaitasun horiek gizarte-interesa duten ekintzen bidez ikasten eta garatzen dira, eta ekintza-hausnarketa prozesuan balioak eratzeko dira, prozedurak eskuratzen dira, konpromisoak zehazten dira, etab. Azken finean, gizalegezko espiritua garatzen da, eta inplikaturako pertsonen era praktikoa berenganatzen dute herritartasun-sentimendua, bai eta komunitate bateko kide arduratsu izatearen esperientzia ere.

1.6.- ZERGATIK GAUZATU IKASKUNTZA-ZERBITZUA GURE IKASTETXEETAN?

Ikaskuntza-zerbitzuko prozesuak gauzatzeko interesa eta egokiera justifikatzen eta azaltzen duten arrazoiak askotarikoak dira. Ondorengo lerroetan zehazten dira haietako batzuk, garapenean parte hartzen duten zenbait eremuri buruzkoak.

Protagonistei dagokienez, hauek dira ikaskuntza-zerbitzuaren eraginak:

- Onuragarria da, bai zerbitzua ematen duenarentzat, bai hartzen duenarentzat: elkarri mesede egiten diote.
- Ikaskuntzaren aldeko motibazioa eragiten du, eta prozesu hori bizipenezkoa, kritikoa eta esangarria da.
- Parte-hartzaileak protagonista izatea dakar, bai ikastetxeetan, bai gizartean, eta irudi positibo bat proiektatzen dute.
- Ikasle guztiak proiektu komunetan sartzeari dakar. Ikasle bakoitzak bere ekarpena egiten du proiektu komunaren alde, eta harekin identifikatuta sentitzen da.

Hezkuntza-erakundeari dagokionez, hauek dira ikaskuntza-zerbitzuaren eraginak:

- Neska-mutilen garapen akademikoa, gizalegezkoa, etikoa, pertsonala, soziala eta profesionala bultzatzen du, eta hezkuntza-errendimendua areagotzen du.
- Hezkuntza-proposamen eta metodologia berritzaileak abiarazten ditu.
- Hezkuntza-erakundeko gizarte-giroa hobetzen du.
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden ikasleak hezkuntzan barneratzea bultzatzen du.

Gizarte-erakundeei dagokienez, hauek dira ikaskuntza-zerbitzuaren eraginak:

- Komunitateko beste eragile batzuekin batera koordinatuta lan egiteko aukera ematen du, gizartea hobetzea helburu hartuta.
- Lagungarria da neska-mutilak gizartearekin arduratsuak izan daitezen, eta etorkizunean kausa solidarioekin konprometi daitezen.
- Gizarte-erakundea eta haren misioa ikusgarriagoak izatea dakar.

Komunitateari dagokionez, hauek dira ikaskuntza-zerbitzuaren eraginak:

- Hezkuntza-erakundeen eta gizarte-entitateen sare-lana bultzatzen du.
- Lurraldea eremu pedagogiko gisa sustatzen du; baliabide didaktiko ez ezik, hezkuntza-ekintzen protagonista eta hartzaile da.
- Lurraldeko elkarte-ehuna sendotzen du.

Eremu politikoari dagokionez, hauek dira ikaskuntza-zerbitzuaren eraginak:

- Herritartasuna eta herritar-erantzukizuna hobeto gauzatzea bultzatzen du.
- Iraunkortasuna bideratzen duen proposamena da; izan ere, baliabideei probetxu ateratzen die eta ahaleginak bateratzen ditu, inguruko hezkuntza- eta gizarte-premiei erantzuteko.

2.- AHOLKULARITZA IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUETAN**ESKOLAKO IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUEI AHOLKU EMATEKO
5 GILTZARRI****2.1. ZER DA IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BATI “AHOLKULARITZA” EMATEA?**

Aholkularitza definitzeko hainbat modu daude. Oro har, aholkularitza ulertzen da pertsona bati edo talde bati zereginak gauzatzeko laguntza, orientabidea edo aholkua emateko jarduera gisa.

Nolanahi ere, ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzeko aholku emateko prozesuak berdintasun-harremanetan oinarritu behar dira, konfiantza eta komunikazio irekia ardatz hartuta. Horrenbestez, aholkularitzak hezkuntza-egoerei aurre egiteko alternatibak ematen ditu, baliabide pertsonalak aktibatzen ditu, eta hezitzaileei prozesuan laguntzen die.

Prozesu interaktiboa da, eta lankidetzan identifikatutako erronken aurrean konponbide sortzaileak planteatzeko aukera dute parte-hartzaileek.

2.2. ZEIN DIRA IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BATI “AHOLKULARITZA” EMATEKO JARRAIBIDE OROKORRAK?

1.- Parte-hartzean, negoziazioan eta eraikuntza partekatuan oinarritutako aholkularitza-harremana bideratuko duen testuinguruan kokatzea.

2.- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak ikastetxe batean gauzatzen dira, eta arlo edo irakasgai batetik abiatzen badira ere, gainerako ikaskuntzekin lotuta daude beti, eta ikasleen oinarritzko gaitasunen multzoa garatzea dute helburu.

3.- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batean aholku emateko, eskolari buruzko kontzepzio globala hartu behar da oinarri, ikasten duen erakunde gisa; curriculum eta dagozkion prozesuak ikaskuntza guztiak egituratuko dituzten elementutzat hartu behar dira; hezkuntzako profesionalak ikaskuntza-prozesuaren bideratzailetzat eta aholkularitza-harremanaren ezinbesteko elementutzat hartu behar dira.

4.- Aholkularitzan diharduten kanpoko eragileen jarduna lotuta dago eskolaren, eskolako zereginen eta irakasleekiko harremanen izaera soziala aitortzearekin.

2.3. ZER IKUSPEGI AINTZAT HARTZEN DITU IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BATI “AHOLKULARITZA” EMATEAK?

Hezkuntzaren testuinguruan, zenbait ikuspegitatik kontuan har daiteke termino hori, ekintzaren xedearen arabera ñabardura batzuk erantsita:

Aholkularitza orientabide gisa. Orientabidea ematea, adiera arruntena kontuan hartuta, pertsonaren bat, gauzaren bat edo ekintzaren bat helburu jakin batera bideratzea da. Horren haritik, aholkularitza da pertsona kualifikatu batek subjektu bati ematen dion laguntza sistematiko oro, aukera eta interesak hobeto ezagut ditzan, eta helburuak garbiago definitzen laguntzea, segurtasun handiagoz lor ditzan.

Aholkularitza informazio gisa. Informatzea, eskuarki, zerbaiti buruzko albisteak norbaiti ematea da. Informazio-ekintza horrek berebiziko garrantzia dauka, lehen adierazitako orientabidearen osagarri gisa. Horren bidez, ikasleei eta haien familiakoei edo arduradunei jakinaraziko zaizkie komunitatean dauden baliabideak, kasuari dagozkion hezkuntza- edo errehabilitazio-neurriak bultzatzeko.

Edukiei eta prozesuei buruzko aholkularitza. Ikaskuntza-zerbitzua aplikatzeko egoera eta fase batzuetan litekeena da lehen aipatutako modalitate horietako bi bateratu behar izatea. Esate baterako, ikaskuntza-zerbitzuko proiektu berri bati ekiten dion irakasle batek informazio, eduki eta gida ugari beharko ditu, ikaskuntza-zerbitzua ezagutzeko eta motibazioa eragiteko.

Aholkularitza aholku edo irizpen tekniko gisa. Aholku hartzea (gaztelaniaz *asesorarse*, latineko *assidere* iturri duena, norbaiti heldzea, laguntza lortzeko) asistentzia bilatzea da, kontsulta egitea, pertsona batek beste baten burubidea hartzea. Hezkuntza-prozesuaren une jakin batzuetan baliteke espezialistaren baten aholku teknikoa beharrezkoa edo komenigarria izatea.

2.4. ZER ETAPA DAUDE IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BATI AHOLKU EMATEKO PROZESU BATEAN?

A. Beharrak identifikatzea. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat sortzen da neska-mutilek, ikastetxeak, hurbileko komunitateak zein gizarteak, oro har, bizi duten errealitatearen azterketaren ildotik. Azter daitezkeen premia zehatzak identifikatzeko prozesu horretan laguntzea du helburu aholkularitzak. Sarritan, hezkuntzari buruzko hausnarketa-prozesuaren emaitzak dira, hain zuzen, ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat abian jartzeko proposamena sorrarazten dutenak.

B. Plangintza. Proiektuak planifikatzeko eta sistematizatzeko prozesuetan asistentzia ematea.

C. Garapena. Proiektuaren garapenean, ebaluaziorako materialen eta tresnen prestaketan eta erakunde-egitura berrien sorreran lankidetzan jardutea.

D. Ebaluazioa. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetan garatzen diren hainbat prozesu (proiektua bera, gaitasunen ebaluazioa, testuinguruaren ebaluazioa eta abar) ebaluatzen laguntzea.

E. Ikerketa-ekintza. Ondo ondoko hausnarketak sistematikoki proposatzea, hezkuntza-jarduna hobetzeko prozesuetan eta proiektuen garapenean aurrera egiteko.

F. Informazioa. Ideia, jardunbide, material eta programa berriak, legedi-aldaketak eta hezkuntza-ikerkuntzaren emaitzak sistematikoki hedatzea.

G. Harreman-sareak egitea. Komunitateko eragileen eta gizarte zibileko erakundeen arteko zubi izatea, ikastetxe barruan komunikazioa bideratzea, etab.

H. Prestakuntza. Ikastetxean prestakuntza-programak garatzea, honako gai hauei buruz: ikaskuntza-zerbitzuaren kontzeptua, proiektuen metodologia, ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen bitartez oinarritzko gaitasunak garatzea, ikaskuntzako proiektu integratuak, etab.

I: Kudeaketa. Laguntza eta lankidetzaren administrazio- eta antolaketa-arazoak konpontzeko.

2.5. ZER ESTRATEGIA ERABIL DAITEZKE IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BATEAN AHOLKU EMATEKO PROZESUAN?

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batean aholku ematen dutenek curriculumeko alderdi orokor eta espezifikoei buruzko ezaupide argi eta zehatzak izan behar dituzte. Alderdi orokorrak: helburu nagusiak, garatu beharreko gaitasunak eta estrategia metodologikoak ezartzea; ikasleak, denborak, espazioak eta materialak antolatzeko moduak; aniztasunari erantzutea; ebaluazio-irizpide orokorrak. Alderdi espezifikokoak: arloen, bloke tematikoen eta esparru-jardueren antolaketa; edukiak sekuentziaztea; orientabide didaktikoak; berariazko ebaluazio-irizpideak; ebaluazio-tresnak. Halaber, komunitatearen arazoak zein proiektu bat definitzeko, hautatzeko, diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuan sortuko diren arazoak identifikatzeko, argitzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko gai izan behar dute.

Bestalde, kontuan izan behar da taldean lan egiteak ikaskuntza- eta interakzio-prozesu konplexuak dakartzala, eta helburua arrakastaz lortu nahi bada harreman-giro egokia behar dela. Horregatik, estrategien garrantzia azpimarratu behar da, eta aldi berean, esku hartzeko prozesuan inplikaturako eragile guztiek izan behar dituzten jarrerari garrantzia eman behar zaie: parte-hartzearen eta talde-lanaren aldeko jarrera positiboak, eta hausnarketarako, errealitatearen analisirako, aldaketarako eta eraldaketarako jarrera irekiak.

Ondorengo lerroetan aurkeztuko ditugu aholkularitza-prozesuan baliagarriak izan daitezkeen zenbait estrategia eta alderdi tekniko.

Komunikazioa eta giza harremanak

Entzuteko eta galdetzeko trebetasunak, komunikazio enpatikoa, zintzotasuna eta posesiboa ez den txera funtsezkoak dira ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen garapena sustatzeko.

Ikaskuntza-zerbitzuari buruzko ezaupideak

Aholku ematen duenak zenbait gai menderatu behar ditu: ikaskuntza-zerbitzuaren oinarriak, proiektu bat garatzeko prozesuak, prestakuntza-curriculumarekiko erlazioa, eta batez ere, oinarrizko gaitasunekin duten erlazioa. Oinarrizko gaitasun horien artean aintzat hartu behar dira gizarte- eta herritar-gaitasunak, ekimen eta autonomia pertsonala, eta ikasten ikastea.

Aldaketarako sistema eta estrategien azterketa

Aholkularitza ematen den erakunde-ingurua ulertu behar da, bai eta esku-hartzeak gauzatzeko testuingurua, hezkuntza-praktika etengabe hobetzeko sistemak eta eskolako aldaketa-estrategiak ere.

Harremana eta laguntza

Sustapen-ekintza gisa ulertzen da, heziketa-taldearekin eta komunitateko pertsona zein erakunde laguntzaileekin lanean jarduteko ekintza gisa, norbanakoek, taldeek eta komunitateek egoerak menderatzen ikas dezaten eta beren garapenean autonomia lor dezaten.

Laguntza hori goraka ari diren interakzio-sareetan oinarrituta eraikiko da batez ere; hau da, subjektuak oinarri hartuta, artekari potentzialak diren aldetik, proiektuen garapenean –eta haien barruan, ikaskuntza-zerbitzu proiektuen garapenean– partekatutako interesen zein arazoen arabera.

Taldeko lana

Aurreikusitako helburuak lortzeko dagokionez, irakasle-taldeei aholku emateko zeregina garatzeko ezinbestekoak dira profesional-talde bat gidatzeko, koordinatzeko eta aktibatzeko gaitasunak eta tresnak.

3. - AHOLKULARITZARAKO EREMUAK IKASKUNTZA-ZERBITZUAN

HEZKUNTZA-INGURUNEAN IKASKUNTZA-ZERBITZU PROIEKTUEI AHOLKU EMATEKO 5 EGOERA

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko garaian, zenbait egoera aurki daitezke. Ondoren deskribatuko ditugu egoera horietako batzuk (ohikoenak, hain zuzen), prozesuen segida osatzen duten urratsen adierazle direnak. Baliteke ikastetxe batean egoera horietako batzuk aldi berean gertatzea.



1.- Ikaskuntza-zerbitzuari buruzko informazioa eta hedapena

Ikastetxeak azken urteetan ez du jarduera solidario sistematikorik egin, ez eta asistematikorik ere, eta ez du gauzatu ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak sustatzeko aurrekari izan daitekeen proiektuen bidezko ikaskuntzaren esperientziarik.

Egoera horretan sentsibilizazio-ekintzak hasi behar dira, eta heziketa-taldeak proposamena beregana dezan sustatu behar da.

2.- Ikaskuntza-zerbitzura bidera daitezkeen praktikak identifikatzea (proiektuak; gizarte-, kultura- eta ekologia-ekimenak; eskolako agenda 21...)

Ikastetxean ez da gauzatu ikaskuntza akademikoekin, curriculum-arloekin zein oinarrizko gaitasunekin lotutako jarduera solidario sistematikorik, baina zenbait esperientzia egin dituzte arlo hauetan:

- Pedagogia aktiboko esperientziak, proiektuen bidezko ikaskuntzak, landa-lanak edo eskola-ikerketak.
- Ikasleen partaidetzaz gauzatutako esperientziak, curriculumaren eremuan eginak (herritartasunerako hezkuntza eta abar).
- Borondatezko jarduera sistematikoak, curriculum akademikoarekin loturarik gabeak.
- Borondatezko jarduera asistematikoak (esate baterako, ingurumenaren zein gizartearen alorreko larrialdiaren baten ondorioz antolatutako kanpaina solidarioak).

3.- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat eraikitze prozesuan laguntzea

Eskolan gauzatzen dituzte jada ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak, curriculum-arlo bateko edo gehiagotako eduki akademikoekin bat eginez, berariaz egituratuta edota ikastetxearen heziketa-proiektuaren (IHP) zati gisa. Hala eta guztiz, laguntza eskatzen dute edo laguntza behar dute proiektuak curriculum-arloen, gaitasunen zein balioen arabera egituratzeko, eta zubi bat behar dute komunitatearekiko harremanetarako.

4.- Ikastetxeak bere planetan ikaskuntza-zerbitzua sartzeko asmoa izanez gero aholkularitza ematea

Egoera hori sortzen da irakasleen klaustroak zein eskola-kontseiluak erabakiz gero ikastetxeko plan edo proiekturen batean ikaskuntza-zerbitzua sartzea, zenbait maila eta zenbait ikasturte-zati zeharka hartuko dituen heziketza-jardunbide den aldetik, eta ikastetxeko heziketa-proposamen orokor gisa txertatzea.

5.- Proiektuaren ebaluazioan laguntzea

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen giltzarritzako uneetako bat ebaluazioa da. Baliteke prozesu horretan laguntza eskatzea ebaluazioaren arlo hauek jorratzeko: prozesuaren ebaluazioa; harremanen ebaluazioa; ikaskuntzen ebaluazioa; irakasleen, ikasleen zein gizarte-eragileen ikuspegitik egindako ebaluazioa eta abar.

Ebaluazio-prozesu horren helburua da ondorioak ateratzea, gero prozesuak eta ikaskuntzak hobetzeko, etorkizuneko proiektuak abian jartzeari begira.

1. EGOERA	IKASKUNTZA-ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HEDAPENA
------------------	--

Aholku emateko egoera honetan kontuan hartzen da azken urteetan ikastetxeak ez duela jarduera solidario sistematikorik egin, ez eta asistematikorik ere, eta ez duela gauzatu ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak sustatzeko aurrekari izan daitekeen proiektuen bidezko ikaskuntzaren esperientziarik.

Egoera horretan *sentsibilizazio-ekintzak hasi behar dira, eta heziketa-taldeak proposamena beregana dezan sustatu behar da.*

Atal honi dagokion aholkularitza-prozesuaren bidez, ikaskuntza-zerbitzua ikastetxean gauzatzea bultzatuko da, zenbait estrategiaz baliatuta.

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren hedapena bai ikastetxe barruan bai ikastetxetik kanpo gauzatzea komeni da. Kanpoko hedapen horri dagokionez, berariaz aipatu behar dira irakasleen prestakuntzarako zentroak, hainbat motatako hezkuntza-zerbitzuak, berritzeguneak, ingurumenari dagozkion hezkuntza-planak, hiriari dagozkion hezkuntza-planak, hezkuntza-berritapenerako esperientziak trukatzeko jardunaldiak, eta hedapen ahalik eta handiena lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen eremu guztiak.

Helburua:

Ikaskuntza-zerbitzua aurkeztea, eskola-ikaskuntzak komunitatea hobetzeko proiektuekin lotzen dituen hezkuntza-estrategia berritzaile gisa. Horrenbestez, ikasleek esperientzia baliotsuak dituzte, bakoitzaren adinaren eta hezkuntza-mailaren arabera, eta gizarte- eta herritar-gaitasunak garatzen dituzte, oinarritzko gaitasun guztiak garatzeko ardatz gisa.

Helburu hori garatzeko, hedapen-ekintzaren aurretik honako jarduera hauek gauzatu behar dira:

- Inguru hurbilean edo ez hain hurbilean ikaskuntza-zerbitzuari loturik gauzatzen diren esperientziak biltzea.
- Ikaskuntzarako hezkuntza-berrikuntzaren ikuspegitik ikaskuntza-zerbitzuak ematen dituen aukeren adierazle diren esperientziei buruzko bideo laburrak biltzea.
- Idatzizko euskarrian dauden materialak biltzea: esperientziak deskribatzen dituzten aldizkariak, ikaskuntza-zerbitzuko liderrei egindako elkarrizketak, liburuak, gidak... Xedea da testu-bilduma bat osatzea, irakasleek ikaskuntza-zerbitzua errazago ulertzeko eta ekimen horrek ematen dituen aukerak hobeto jakiteko.
- Ikaskuntza-zerbitzuko ekimenetan diharduten irakasle, boluntario eta elkarteekin harremanetan jartzea, ikastetxera joan eta beren esperientzia azal dezaten, edo bestela, irakasleren bat esperientzia gauzatzen den tokira joan dadin, bertatik ezagutzeko.

Aholkulari-taldeak zenbait formatu erabil ditzake aurkezpena egiteko, testuinguruaren ezaugarrien arabera. Ikus ditzagun zenbait aukera:

1. Zonaldeko zuzendaritza-taldeek koordinaziorako saio batzuk ematea ikaskuntza-zerbitzuari buruzko oinarritzko aurkezpen bat egiteko, estrategia berritzaile gisa ezagutarazteko.
2. Batzuetan guraso-elkarteek bultzatu dute ikastetxean ikaskuntza-zerbitzua ezartzea, ikasleen gizalegezko prestakuntza solidarioa bideratzeko baliabidea den aldetik.
3. Ikastetxean bertan irakasle-talde batek gizarte-zientzien zein gizalegezko prestakuntzaren alderdi batzuk modu praktikoan landu nahi ditu. Kasu horretan, ikaskuntza-zerbitzua aurkeztuko zaio irakasle-taldeari.
4. Irakasleen ordutegian ikastetxean bertan ematea aurreikusitako planen barruan proiektuen bidezko ikaskuntza landu daiteke, eta haien barruan, ekintza solidarioa helburu duten proiektuak aintzat hartzekoak dira.
5. Ikastetxeak eskatuta, prestakuntza-saioak proposatzen dira, eskolaren eta komunitatearen arteko harremana eta erlazio hori garatzeko modu zehatz bat oinarri hartuta.
6. Zonaldean irakasleen etengabeko prestakuntzarako ikastaro bat egitea proposatzen da. Proiektuen bidezko ikaskuntzaren ikuspegitik ekiten zaio aurkezpenari, eta haien barruan ikaskuntza-zerbitzu solidarioa aintzat hartuko da, eskolaren eta komunitatearen arteko harremanak helburu dituen berariazko proiektua den aldetik.
7. Gizartearen aldetik (gobernuz kanpoko erakundeek, udalek, Jaurilaritzako sailak eta abarrek) egindako hainbat proposamenen aurrean, eta ikastetxeek eskaera horiei erantzuteko dituzten zailtasunak kontuan hartuta, alderdi horiek guztiak ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batean/batzuetan integratzea proposatzen da.

Honako ekimen hauen bidez egin daiteke:

Ikaskuntza-zerbitzuari buruzko atariko saio bat ikastetxe batean

Ikaskuntza-zerbitzuari buruzko atariko saio batek xumea eta eskematikoa izan behar du, funtsean, eta ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiaren oinarritzko alderdiak aurkeztu behar ditu.

- Hasieran IKASKUNTZA-ZERBITZUA zer den azal daiteke labur-labur. Azpimarratu behar da, batez ere, ikaskuntza sendotu edo garatu egiten dela, komunitatearen egoera hobetzen duen ekintza edo proiektu baten bidez.
- Ahal den neurrian, ikaskuntza-zerbitzuan esperientzia dutenen laguntza kontuan hartu behar da. Testuinguruaren arabera, baliteke interesgarria izatea ikaskuntza-zerbitzuko esperientziaren batean parte hartu duen beste ikastetxe bateko irakasleren batengana edo gobernuz kanpoko erakundetako kideren batengana jotzea, bai eta DBHko, Batxilergoko eta LHko ikasle batzuegana ere.

Halaber, ikaskuntza-zerbitzuko esperientziak azaltzen dituzten bideo laburren bat eman daiteke.

- Esperientzia horiek oinarri hartuta, garatutako hezkuntza-prozesuaren osagaien oinarrizko elementuak azpimarratu behar dira, eta ikaskuntzek curriculum-arlo jakin batzuekin edota curriculumarekin oro har (diziplinarteko proiektu gisa) duten lotura nabarmendu behar da.
- Elementu horiek aurkeztu ondoren, proposa daiteke jarduera erraz batekin hastea, edota hastapen-ikastaro osoago bat planteatzea, metodologia lantzeko.

Ikaskuntza-zerbitzuari buruzko atariko tailer bat irakasleentzat

Atariko tailer hori bi lan-saiotan egin daiteke, eta saio bakoitzak ordu pare bat iraun ohi du.

HELBURUAK

1. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak trukatzea eta identifikatzea, parte-hartzaileen ohiko heziketa-esperientziak oinarri hartuta.
2. Ikaskuntza-zerbitzuaren alderdi metodologikoetan sartzea.
3. Horrelako jardunbideetan sare-lanaren garrantziaz ohartzea eta aintzat hartzea.
4. Ikaskuntza-zerbitzuari lotutako jardunbidea sustatzea etorkizuneko proiektuetan.

EGITURA ETA EDUKIAK

1. Nola ekin ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bati: Etapa metodologikoak.
2. Sare-lana ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetan.
3. Ikaskuntza-zerbitzuko esperientzien azterketa metodologikoa.

1. ERANSKINAK TAILERRA GARATZEKO eredu bat eta saioak prestatzeko MATERIALAK aurkezten ditu.

2. EGOERA**IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROPOSAMEN BIHUR
DAITEZKEEN HEZIKETA-JARDUNBIDEAK
IDENTIFIKATZEA**

Bigarren egoera honetan kontuan hartzen da ikastetxean ez dela gauzatu ikaskuntza akademikoekin, curriculum-arloekin zein oinarritzko gaitasunekin lotutako jarduera solidario sistematikorik, baina zenbait esperientzia egin dituztela honako arlo hauetan:

- Borondatezko jarduera sistematikoak, curriculum akademikoarekin loturarik gabeak.
- Borondatezko jarduera asistematikoak (esate baterako, ingurumenaren zein gizartearen alorreko larrialdiaren baten ondorioz antolatutako kanpaina solidarioak).
- Pedagogia aktiboko esperientziak, proiektuen bidezko ikaskuntzak, landa-lanak edo eskola-ikerketak.
- Ikasleen partaidetzaz gauzatutako esperientziak, curriculumaren eremuan eginak.

**Helburua:**

Ikaskuntza-zerbitzuko elementu bereizgarri batzuk txertatzearen bidez ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bihur daitezkeen heziketa-jardunbideak identifikatzea.

Helburu hori garatzeko, identifikazio-ekintzaren aurretik honako jardura hauek gauzatu behar dira:

- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu gisa planteatu daitezkeen esperientzia zein jardueren buruzko informazioa.
- Inguru hurbilean edo ez hain hurbilean ikaskuntza-zerbitzuari loturik gauzatzen diren esperientziak.
- Ikaskuntzarako hezkuntza-berrikuntzaren ikuspegitik ikaskuntza-zerbitzuak ematen dituen aukeren adierazle diren esperientziei buruzko bideo laburrak.
- Idatzizko euskarrian dauden materialak: esperientziak deskribatzen dituzten aldizkariak, ikaskuntza-zerbitzuko liderrei egindako elkarrizketak, liburuak, gidak... Xedea da testu-bilduma bat osatzea, irakasleek ikaskuntza-zerbitzua errazago ulertzeko eta ekimen horrek ematen dituen aukerak hobeto jakiteko.
- ...

Halaber, Ikaskuntza-zerbitzuko ekimenetan diharduten irakasle, boluntario eta elkarteekin harremanetan jardaiteke aholkularia, ikastetxera joan eta beren esperientzia azal dezaten, edo bestela, irakasleren bat esperientzia gauzatzen den tokira joan dadin, bertatik ezagutzeko.

Nola identifikatu ikaskuntza-zerbitzutik gertu dagoen planteamendua izan dezaketen ikastetxeko jardunbideak?

Identifikazio hori egiteko, ikastetxeak ikaskuntza-zerbitzuaren eremukotzat jotzen dituen jarduerak ebaluatu eta diagnostikatu behar dira. Horretarako, egiten diren jardueren ezaugarriak identifikatzea eta aldi berean ikaskuntza-zerbitzukoekin kontrastatzea bideratzen duen ebaluazio-tresna beharko da, gero jardura bideratu eta ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bihurtzeko.

Ondoren aurkezten dugu ikastetxeak egiten dituen jarduerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesua bideratzeko gida:

1. Garatutako jardueraren edo esperientziaren deskribapena. Zertan datzan zehazki.

2. **Ikaskuntzari** dagokionez:

- Barne hartzen dituen arlo edo gaiak.
- Garatu nahi diren oinarritzko gaitasunak
- Erabilitako metodologia:
 - Ikasleen antolaketa
 - Jardueraren edo proiektuaren iraupena
 - Zer gunetan gauzatu den
- Aniztasunari nola erantzun zaion

3. **Zerbitzuari** dagokionez:

- Inguruko zer premiei erantzun nahi izan zaie?

- Zer ekintza gauzatu dira inguruan eragiteko?
- Zer onura ekarri dizkio inguruari, beste pertsona batzuei edo komunitateari?

4. Partaidetza aktiboari dagokionez:

- Nork hartu du parte jardueran edo proiektuan?
 - Ikasleak
 - Irakasleak
 - Zuzendaritza-taldea
 - Familiak
 - Udala
 - Gizarte-erakundeak
 - GKEak
 - Bestelakoak

5. Ebaluazioari dagokionez:

- Gauzatutako jarduera bat dator alde zuretik programatutakoarekin.
- Zer mailan lortu dira hezkuntza-helburuak?
- Zenbateraino erantzun zaio planteatutako premiei?
- Zer eragin izan du parte-hartzaileengan eta zer gogobetetze-maila lortu da?
- Zer inpaktu izan du inguruan?

Lehen balioespena egiteko, beste alderdi batzuk kontuan har badaitezke ere, nahikoa izan daiteke ikastetxeak egiten dituen jarduerak ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batekin zenbateraino datozen bat argitzea.

Hala eta guztiz, aholkularitza-lana errazteko, **II. ERANSKINAK** zenbait aukera eta/edo curriculum-gaitasun aurkezten ditu, atal hau gauzatzeko.

Zer ikuspegitik eman behar aholkularitza? Hona hemen zenbait adibide:

Irakasleekin prozesua has daiteke errealitatera hurbiltzeko hezkuntza-ekimenak identifikatuz eta hura hobetzeko proposamenak eginez. Kasu horietan ikasleekin batera planifikatzen da oinarritzko gaitasunen zein gaitasun profesionalen garapena eta komunitatearen eskaera zehatzei erantzutea bideratuko duen ikaskuntza-zerbitzuko proiektua.

Lan-proposamenek zein proiektuek har ditzaketen eremuak asko eta askotarikoak dira. **III. ERANSKINAK** ohiko heziketa-jardunbideak ikaskuntza zerbitzuko proiektuetara bideratzeko lagungarriak diren erreferentziazko adibide batzuk aurkezten ditu.

Halaber, **IV. ERANSKINAK** ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak egiteko aukera desberdinak aurkezten ditu, landu nahi diren arloen eta curriculum-gaitasunen arabera.

3. EGOERA	IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BAT ERAKITZEKO PROZESUAN LAGUNTZEA
------------------	--

Egoera honetan kontuan hartzen da ikastetxean gauzatzen dituzte jada ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak, curriculum-arlo bateko edo gehiagotako eduki akademikoekin bat eginez, berariaz egituratuta edota ikastetxearen heziketa-proiektuaren zati gisa.

Kasu honetan, laguntza eskatzen dute edo laguntza behar dute proiektuak curriculum-arloen, gaitasunen zein balioen arabera egituratzeko, eta zubi bat behar dute komunitatearekiko harremanetarako.

Helburuak

Ikaskuntza-zerbitzuko jardunbideak hobetu nahi dituen ikastetxe batean laguntzeko estrategiak ezartzea.

Nolakoa izan daiteke aholkularitza-egoera?

Egoera hau sor daiteke eskolako irakasleek, familiek zein ikasleek eskatuz gero. Halaber, proiektuaren garapenean zenbait ahulgune ikusiz gero, aholkulari-lantaldeak proposa dezake ikastetxeak gauzatzen dituen proiektuei buruzko hausnarketa elkarrekin egitea.

Ikasgai bati zein curriculum-arlo bati dagozkion heziketa-proiektuen nahiz zenbait arlok partekatutako proiektuen garapena hobetzeko eremuan gaude.

Interesgarria izan daiteke ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batzuek dituzten ahulguneen analisisa eskura izatea.

Zenbait proiekturen ahulgune guzti-guztiak identifikatzeko asmorik gabe, zenbait ahuldade aipa ditzakegu, eta aholkularitza-jardunak aurrera egitean identifikatu heinean erantsi daitezke ahulgune gehiago.

Kontua da hobetu daitezkeen egoerak aintzat hartzea.

Ondoren, proiektuetan hobetu daitezkeen hamar egoera ohikoenak azalduko ditugu.

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu baten garapenean hobetu daitezkeen 10 balizko egoera

- 1.- Ekintza ardatz hartuta, curriculum-erreferentea alde batera utzi da.
- 2.- Curriculum-erreferentea ardatz hartuta, ekintza eraldatzailearen garrantzia alde batera utzi da.
- 3.- Ikasleen protagonismoa desagertu da, eta irakasleen aginduak bete besterik ez dute egiten.
- 4.- Ikastetxearen barne-eremua soilik hartu da ardatz, komunitatea alde batera utzita.
- 5.- Proiektua eskolako ariketen multzo bihurtu da. Proiektu baten birtualtasuna galdu du.

6.- Ikastetxeko zuzendaritzak ez du ikaskuntza-zerbitzuko proiektua bere egin.

7.- Ez dago komunitatearekiko benetako eta egiazko komunikaziorik. Ekintza **komunitatearentzat** egiten da, ez ordea **komunitatearekin**.

8.- Curriculum-arloen ebaluazioak ez ditu aintzat hartzen projektuan garatutako ikaskuntza eta gaitasunak.

9.- Proiektuaren garapenaren ebaluazio bat falta da, honako eragile hauen esku-hartzearekin: irakasleak, ikasleak, komunitateko beste eragile batzuk, proiektuaren hartzaileak eta abar.

10.- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren azken ebaluazioa egin ondoren, ez da gauzatzen ekintzarik, parte-hartzaileek ikasi dutenaren kontzientzia har dezaten, eta gauzatutako ekintzaren potentzial eraldatzaileaz ohar daitezen.

Nola ekin, ordea, hobetu daitezkeen egoera horiei?

Egoera horiei aurre egiteko garaian, proiektuen ahuldadeak berrikusteko argibideak ematen dituen tresna egokiren bat izatea komeni da.

Sarean material ugari dago. Haietatik hiru proposatuko ditugu ondoren, kontrastatu direla eta argibide baliagarriak ematen dituztela aintzat hartuta.

Cathryn Berger Kaye, M.A. (2004). *The complete Guide to Service Learning*. Minneapolis. AEB.
Egilea ikaskuntza-zerbitzuaren alorreko nazioarteko aditua da. Gidaliburu honek (ingelesez) ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen curriculum-aukeren zerrenda ematen du, eta proiektu bat prestatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko tresna erreproduzigarrien zerrenda ere badakar.

Zerbikas gida 1. zenbakia. Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat.
<http://www.zerbikas.es/guias/es/1.pdf>

Josep Maria Puig, Xus Martí eta Roser Batlle dira gida honen egileak. *Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat prestatzeko jarraibide zentzuzkoak ematen ditu, eta horrenbestez, ahuldadea ekar dezaketen alderdietan eragiteko egokiak dira.*

Manual para docentes y estudiantes solidarios.
http://www.clayss.org.ar/archivos/natura_10_web.pdf
CLAYSSek egindako eskuliburua da, eta ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzeko zenbait alderditan eragiteko askotariko hausnarketa-tresnak jasotzen ditu. Interesgarria.

Ekiteko iradokizunak

1. Ekintza ardatz hartuta, curriculum-erreferentea alde batera utzi da.	Curriculum-erreferentea ahaztuta uztean, hasierako ideia aldatzen da, eta ez dator bat "ikaskuntza-zerbitzu" kontzeptuarekin: benetako ikaskuntzak, curriculumekoak eta komunitatearen aldeko zerbitzua proiektu bakar batean uztartzea. Ekintza eraldatzailearekin batera eskola-ikaskuntzak gauzatu behar dira (dimentsio guztietan). Hasteko, heziketa-taldearekin hausnarketa egin behar da, egiten dena eta eskolako ikaskuntzak nola lotu argitzeko. Ez da inprobisazioaren edo kasualitatearen mende uzten, "zerbait ikasiko dute" edo "ondo etorriko zaie, ziur" soilik pentsatuz. Ikaskuntza horiek planifikatzen dira, bai curriculum-arloetakoa denean, bai zeharkakoa denean, oinarrizko gaitasun jakin batzuetan bezala.
---	---

2. Curriculum-erreferentea ardatz hartuta, ekintza eraldatzailearen garrantzia alde batera utzi da.	Curriculumari lotutako alderdiak dira erreferente bakar. Horrenbestez, edozer gauza komunitatea hobetzeko ekintza gisa identifikatzen da. Prozesuan bi alderdiak aldi berean aintzat hartu behar dira. Horrenbestez, curriculum-ikaskuntzak erreferentzia bat dauka hobetzeko ekintzan ere, betiere ikasleen adina eta eskolak komunitatean duen egoera kontuan hartuta.
3. Ikasleen protagonismoa desagertu da, eta irakasleen aginduak bete besterik ez dute egiten.	Batzuetan, heziketa-taldeak dena egina ematen die ikasleei, eta ikasle horiek irakasleek agindutakoa bete besterik ez dute egiten. Lehenik eta behin, neska-mutikaren adina kontuan hartu behar da. Hala eta guztiz, "gertu egote" hori osatu egin behar da erabakitzeak aukera ematearekin, bai eta gauza txikiak ere. Proiektuen bidez ikastea dakarren ikaskuntza-prozesuak diseinu egokia behar du. Zenbateraino zuzendu behar da? Zer, noiz eta nola garatu behar da erabakiak hartzeko gaitasuna haurraren? Horiek dira oinarritzko galderak. Kontuan izan behar dugu "ekimena eta autonomia pertsonala" gaitasuna ildo horretan doala: erabakitzeak gaitasuna, ekintzan sortzen diren arazoak konpontzeko gaitasuna, ekintza antolatzeak gaitasuna garatzea, egituratzea, ebaluatzea...
4. Ikastetxearen barne-eremua soilik hartu da ardatz, komunitatea alde batera utzita.	Pentsatu behar da noiz eta nola eman behar den komunitateari zerbitzu ematea, den-denak ikastetxean ardatz duela pentsatu gabe. Egia da ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batek ekintza eraldatzailearen xedetzat har ditzakeela ikastetxearen beraren premiak, hurbileko zein urruneko komunitatera hurbiltzea komeni da (lankidetzak-proiektuak, Hirugarren Munduan gauzatzeak proiektuak eta abar).
5. Proiektua eskolako ariketen multzo bihurtu da. Proiektu baten birtualtasuna galdu du.	Ikaskuntza-zerbitzuko proiektua ez da ikasgelako ariketa. Ez dira "etxeko lanak". Kontua da neska-mutikaren prozesu hauetan parte hartzea: errealitatearen analisia, ekiteko aukerak bilatzea, ekintzaren planifikazioa, gauzatzea, autoerregulazioa eta ebaluazioa. Ikaskuntza-proiektu bakoitza, hasiera-hasieratik "proiektu" bat da, bere osagai guztiak barne hartuta. Gizarte-interesa duen proiektua da, gizartearen eraldatzeko eta hobetzeko konpromisoa duena. Zerbitzu-proiektua den aldetik, zerbitzu horren zentzua bilatu behar da, eta komunitateko alderdi hau edo beste hura hobetzen lagundu. Hartara, pixkanaka, ildo horretan aurrera egin daiteke. Batzuetan aholkularitzak bideratzen du jardunak ahalik eta gehien antzeratzea ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren kontzeptura.
6. Ikastetxeko zuzendaritzak ez du ikaskuntza-zerbitzuko proiektua bere egin.	Irakasle batek edo irakasle-talde batek ikaskuntza-zerbitzuaren bideari ekin diote, garapen didaktikoaren elementu garrantzitsu gisa hartuta. Ikastetxeko Zuzendaritzak ez du kontuan hartzen, zailtasunak jartzen dizkio edo ez du bere gain hartzen ikastetxearen aukera gisa. Nola jokatu behar da? Apurka lan egin behar da, klaustroko irakasleen atxikipenak lortzeko. Zenbait kontu: - Erabakiak hartzean garrantzi handikoak diren zenbat pertsonengan eragin behar da, gaia beren gain hartzea errazagoa izan dadin? - Nor dira ikastetxean ospe handia eta oihartzuna duten pertsonak, proiektuaren alde jar daitezkeen konbentzitu behar direnak? - Nor dira kanpoko aktoreak, esate baterako eskola-kontseiluko kideak, erabakiak hartzean eragin dezaketenak? - Gorabeherak, baliagarritasuna, birtualtasuna nola azaltzea komeni da, klaustroko irakasleek uler dezaten eta ez dezaten mehatxutzat hartu?

7. Ez dago komunitatearekiko benetako eta egiazko komunikaziorik. Ekintza “komunitatearentzat” egiten da, ez ordea “komunitatearekin”.	Ikastetxea komunitatetik aparte dagoen gotorlekutzat hartzen duen topiko zaharra da. Komunitatea ikusten da eskolako bizitza nahasiko duen mehatxu gisa. Alabaina, eskola zenbat eta gehiago urrundu komunitatetik, orduan eta korapilatsuagoa eta zailagoa da harremana. Egin behar den bidea da komunitateko indar bizek eskolan oihartzuna izatea. Esate baterako, auzo-elkarteetan, klaustroan eta ikasle nagusien artean informazio emateko saio batzuk egitea. Tokiko gobernuz kanpoko erakundeek beren jarduerari buruz hitz egiteko aukera dute, Gizarte Hezkuntzako edo Gizarte Laneko profesionalek komunitatearen eta bertako premien analisia egin dezakete, ikasleek kalean elkarriketatzen dituzte komunitateko pertsona adierazgarriak... Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batek komunitateko premiekin lotura behar du, eta premia horiek ulertzeko, komunitateak berak interpretatu behar ditu, eta gero irakasleek eta ikasleek berrinterpretatu behar dituzte.
8. Curriculum-arloen ebaluazioak ez ditu aintzat hartzen proiektuan garatutako ikaskuntza eta gaitasunak.	Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batek ikaskuntza-osagairen bat izanez gero, curriculum-arlo bateko edo gehiagoko kalifikazioen zati gisa ebaluatu eta balioetsi behar da. Horren haritik, kontuan izan behar da horrelako proiektuetan parte hartzea, eta ikaskuntzak aintzat hartu behar dira, bai eta autoebaluazioa edo talde-ebaluazioa ere. Gai horiek prozesu guztia hasi aurretik zehaztu behar dira. Zer ikasiko da? Zer eragin du curriculum-arlo batean edo gehiagotan? ...
9. Proiektuaren garapenaren ebaluazio bat falta da, honako eragile hauen esku-hartzearekin: irakasleak, ikasleak, komunitateko beste eragile batzuk, proiektuaren hartzailak eta abar.	Ebaluazioa baliagarria izan dadin, proiektuaren amaierako festa-egunean jasotako inpresioak ez dira nahikoa. Inpresio-bilketa hori ondo dago, egin behar da, batez ere proiektu bat burutu dela ohartzeko. Baina, hobekuntza- tresna gisa erabili nahi badugu. Ez da nahikoa. Hortaz, ebaluazioko galde-sortak prest eduki behar ditugu parte hartu duten kolektiboek betetzeko. Hartara, informazioa bildu eta etorkizuneko proiektuak hobetzeko aukera izango dugu.
10. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren azken ebaluazioa egin ondoren, ez da gauzatzen ekintzarik, parte-hartzaileek ikasi dutenaren kontzientzia har dezaten, eta gauzatutako ekintzaren potentzial eraldatzaileaz ohar daitezen.	Batzuetan, zenbait proiektuk ez dute egunkaririk, ez adierazpen grafikorik, ez gorabeheren kontakatarik, ez hobetze aldera aintzat hartu beharreko alderdien aipamenik, ez eta protagonistek, etorkizuneko edizioei begira, kontuan hartu beharreko alderdi gisa adierazitakorik. Hortaz, dossier bat egin behar da, egindakoa jakinarazteko, informazio horren guztiaren bidez, eta web orri batean, bideo batean, tokiko aldizkari edo egunkari bateko artikulua batean adierazi behar da, Halaber, garrantzitsua da proiektuaren amaiera ospatzea, inplikaturako guztiarekin Ez da eskolako beste lan bat, lan kolektiboa da, nortasun-agiri bat da, bizi izan den zerbaiten proiektzioa da. Festa funtsezkoa da.

4. EGOERA


IKASTETXEAK BERE PLANETAN IKASKUNTZA-ZERBITZUA SARTZEKO ASMOA DUENEAN AHOLKULARITZA EMATEA

Egoera hau sortzen da irakasleen klaustroak zein eskola-kontseiluak erabakiz gero ikastetxeko erakunde-proiektuetan ikaskuntza-zerbitzua sartzea, zenbait maila eta zenbait ikasturte-zati zeharka hartuko dituen heziketza-jardunbide gisa.

Esan nahi du ikastetxea, oro har, komunitatearekin konprometituta dagoela, eta haren zati sentitzen dela.

Helburua

Lantaldearekin batera, ikastetxearen heziketa-proiektua aztertzea, ikastetxeko heziketa-aukeretan ikaskuntza-zerbitzua nola txertatu erabakitzeke.



Ikastetxe bati aholku emateko bere heziketa-proiektuan edota ingurumen-planetan ikaskuntza-zerbitzua zein jardunbide solidarioak txertatzeko prozesuan, laguntza ematen duenak hausnarketa egin behar du, ideia edo proposamen hori formalki nola txertatu hausnartzeko ez ezik, ikastetxeko hausnarketa-jardunbidean eta jardunbide operatiboan nola integratu argitzeko. Horrenbestez bideratzen da ikastetxea komunitatera hedatzea: komunitateak hautematen du ikastetxea berea dela, eta ikastetxeak garapenerako toki natural gisa hartzen

du komunitatea.

Ikastetxearen heziketa-proiektua, hausnarketa kolektiboaren emaitza den aldetik, egoera honetan lan egiteko giltzarritzko tresna izango da. Esparru honetan ezartzen da ikaskuntza-zerbitzuaren heziketa-proposamena nola lotu ikastetxeko beste proposamen, plan eta ekimen batzuekin.

Ikastetxearen heziketa-proiektuan ikastetxeko heziketa-aukera orokorra ezartzen da, eta aukera horietako bat izan daiteke, hain zuzen, herritar-heziketa eta komunitateari zerbitzu emateko esperientziak. Ikastetxearen curriculum-proiektuan, berriz, prestakuntza-helburuak zehazten eta edukiak adierazten dira, eta irakaskuntza-ikaskuntzaren eta ebaluazioaren prozesuak bideratzen dira.

Hor txertatzen da, besteak beste, ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia, ikastetxearen heziketa-proiektuko hasierako proposamenean aurrera egiteko estrategia egokia den aldetik.

Hausnarketan kontuan hartu beharreko alderdiak

Ikaskuntza-zerbitzua ikastetxearen heziketa-proiektuaren zer alderditan txertatzeari buruz aholku emateko hausnartu beharreko zenbait arlo:

- Ikastetxearen eta inguruaren analisia, bien eskaerak eta beharrak hobeto ezagutzen laguntzeko, eta premia horiei arreta emateko benetako aukeren berri izateko.
- Ikastetxearen identitate-printzipioak, ekintzaren oinarri izango diren ezaugarri eta balioetan adierazten direnak.
- Ikastetxeak lortu nahi dituen oinarritzko helburuak, ikastetxearen identitate-printzipioekin eta ikasleen heziketa-premiekin bat etorritz.
- Heziketa-ekintzarako jarraibideak proposatzen dituen ildo pedagogikoa, curriculumaren helburu batzuk ezartzen dituen, ikastetxean garatzeko zenbait proiektu zehaztuta eta hezkuntza-komunitaterako oinarritzko gaian gidalerroak ezarrita.
- Proposatutako printzipio eta helburuen arabera antolamendu- eta funtzionamendueredua, egitura, parte hartzeko moduak eta funtzionamendurako printzipio orokorrak eta ikastetxea ingurunearekin lotzeko moduak adierazita.

Heziketa-proposamenak eguneratzea helburu duen hausnarketa eta berrikuspenera denez, partaidetzazko prozesu bideragarri eta eraginkorra planteatzea komeni da, ikastetxearen heziketa-proiektua berrikusteko, epe eta ahalegin zentzuzkoan. Kontua ez da proiektu guztia berriro egitea, ikuspegi berriak sartzeko eta estrategiak eguneratzea baizik.

Prozesu honetan, ikaskuntza-zerbitzuaren ezarpenaren ikuspegitik, kontua da nola ahokatzeko den, zer proposamen egiten den, zer adinetan den egokien, zer ezaugarri dituen, derrigorrezkoa ala borondatezkoa den, etab.

Partaidetzazko hausnarketa-prozesua

Eragileek hausnarketa-prozesuan parte hartzeko, aholkulari-taldeak proposaman hauek egin ditzake:

- Irakasleekin ez ezik, ikasleen familiekin, komunitateko kideekin eta ikasleekin zenbait ekintza gauzatu.

- Ikasleei dagokienez, garrantzitsua da irakasleren batek partaidetzarako tresnak eraikitzeko, dinamizatzeko eta egokitzeko ardura hartzea, ikasleek, adinaren arabera, proiektuaren eraikuntzarako ideiak emateko aukera izan dezaten.
- Eskuarki ikasleen familiek ez dute eskolako hizkera menderatzen, eta hezkuntzari buruz dituzten nahiak adierazteko erraz ulertzen eta esaten diren terminoak erabiltzeko aukera izan behar dute. Batzuetan, heziketa-taldeetan ahazten dugu erabiltzen dugun hizkera aditua ulergaitza dela familia gehienentzat. Egoera hori kontuan hartu eta familien ekarpenen bilketa erraztu behar da, hizkera ulergarria eta haien arabera egokitua erabiltzen duten tresnak emanez.

Partaidetzazko prozesuaren edukia

Balioen eta bizitzarako trebetasunen eremuari dagokio, eta bizitzarako eskola eraikitzeari edo berreraikitzeari ekiteak duen garrantziaz ohartzearekin lotuta dago.

Oinarrizko trebetasunen garapena du ardatz, eta azpimarratzen du modu egokiak bilatu behar direla irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eskolaren inguruko gizarteko eguneroko bizitzan sortzen diren egoeren konponbidean oinarritu behar dela, eta horretarako modu egokiak bilatzeko premia dagoela.

Ikaskuntza-zerbitzua tresna bikaina da inplikaturako eragile guztiek modu sistematiko eta zehatzean lan egiteko, bizitzarako hezteak, balioak, gaitasunak eta abar aintzat hartzen dituen ikuspegitik.

Eskolak bizitzarako prestatzeko gaitasuna izatea nahi badugu, ezin da erakunde isolatu baten antzera eduki. Horregatik, interesgarria da ikaskuntza-zerbitzua ikastetxearen hezkuntza-lerroaren barruan hartzeak ikastetxearen eta inguruaren analisiarekin lotura izatea.

Ikastetxearen inguruaren analisia

Egoera horretan bereziki garrantzitsua da inguruaren analisia egitea, komunitatearekiko lankidetzak ikaskuntza-zerbitzuaren bitartez lotzeko.

Herriar-prestakuntza, inguruaren analisiaren premia gisa

Ikaskuntza-zerbitzua, komunitateak sentitutako premia bati emandako erantzun gisa.

Ikaskuntza-zerbitzuaren aldeko aukerak bat egin behar du ikastetxearen identitate-printzipioekin, hau da, ikastetxeak dituen edo izan nahi dituen ezaugarri-multzoarekin eta hezkuntza-komunitateak partekatzen dituen balioekin. Printzipio horiek ikastetxean hartutako edozein erabakiren oinarrian daude, eta erabaki horien bidez adierazten dira, hain zuzen.

Printzipioek (eta zehazki, heziketa-jardueraren inspirazio-iturri eta oinarri diren printzipioek) hezkuntzari buruzko kontzepzioen berri ematen dute. Printzipio horiek hezkuntza-curriculumean zehaztu behar dira, eta ikastetxearen antolamendu-egituran eta funtzionamendu-arauetan jaso behar dira.

Printzipio horiek hezkuntza-erakundearen gizarte-funtzioari buruzkoak izan behar dute; hau da, ikastetxeak inguruko komunitatean izango duen zereginari buruzkoak, ikasleen beharren eta inguruko egoeraren arabera.


5. EGOERA**PROIEKTUAREN EBALUAZIOAN LAGUNTZEA**

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen giltzarritzko uneetako bat ebaluazioa da. Baliteke prozesu horretan laguntza eskatzea ebaluazioaren arlo hauek jorratzeko: prozesuaren ebaluazioa; harremanen ebaluazioa; ikaskuntzen ebaluazioa; irakasleen, ikasleen zein gizarte-eragileen ikuspegitik egindako ebaluazioa eta abar.

Ebaluazio-prozesu horren helburua da ondorioak ateratzea, gero prozesuak eta ikaskuntzak hobetzeko, etorkizuneko proiektuak abian jartzeki begira.

Helburua:

Heziketa-taldeari laguntzea ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak ebaluatzen



Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat ebaluatzeko, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan, batez ere:

Balia daitezkeen ebaluazio-instantziak identifikatzea

- Bai ikaskuntzen ebaluazioa bai zerbitzuaren ebaluazioa kontuan hartzea.
- Metodologiak, arduradunak, parte-hartzaileak eta haien rolak adieraztea.
- Ebaluazio-tresna egokiak diseinatzea (erregistro-planillak, elkarrizketak, autoebaluazio-galdeketa eta abar).

Ebaluazioak izan behar dituen ezaugarriak:

- Parte-hartzailea eta demokratikoa.
- Prozesuari erreparatzea, ez emaitzei soilik.
- Lorpenen eta aldaketa pertsonalen auto-ebaluazioa bideratzea.

- Begirada positiboa, etorkizunekoa eta hobekuntza helburu duena abiapuntutzat hartzea. Hau da, ebaluazio-jarduera batek adierazten badu erakundeen babesa falta dela, ez da gauza bera “zuzendarien konpromiso-falta” ondorio gisa planteatzea, edota “zuzendariekin bilera adostea, proiektuari buruzko gairen bat edo egoeraren bat planteatzeko”.

Ikus daitekeenez, ebaluazioari lotutako guztiak hausnarketari oso lotutako eragiketa kognitiboak behar ditu, erregistro-, sistematizazio- eta komunikazio-prozesurako oso beharrezkoak direnak.

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batean ebaluatu beharreko oinarrizko alderdiak

Ikaskuntzaren kalitatea:

- Helburu pedagogikoak betetzea.
- Ikasitako eduki akademikoen balioa.
- Landutako gaitasun, trebetasun eta jarreretan lortutako garapen-maila.
- Ikasleek egindako talde-lana.
- Proiektuarekin lotutako gizarte-arazoei buruz taldeak lortutako kontzientziazioaren auto-ebaluazioaren eta ebaluazioaren kalitatea.

Zerbitzuaren kalitatea:

- Adostutako helburuak betetzea.
- Hartzaileen benetako gogobetetzea.

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren inpaktua

- Espero ziren inpaktuen lorpen-maila.
- Goraka doazen eta aurreikusi gabe zeuden balizko inpaktuak.
- Proiektuak ikasle bakoitzarengan duen inpaktua (autoestimua gora egitea, norberaren gaitasunetan segurtasuna eta konfiantza, gaitasun horiek aitortzea).
- Proiektuaren inpaktu pertsonal eta profesionala tartean daudenengan.
- Inpaktu komunitarioa (harremanak, gaitasun instalatua eta abar).
- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren hobekuntzari eta jarraitutasunari buruzko balioespena eta akordioa ikastetxean eta erakunde laguntzailean.

Proiektuaren erakunde-inpaktua:

- Parte hartutako ikasleen errendimendu akademikoa.
- Erakundearen errendimendu akademikoa.
- Ikastetxeko matrikula.
- Barne hartzea eta atxikitzea.
- Bergizarteratzea.
- Familien parte-hartzea.
- Aintzatespena komunitatean.

Aktore garrantzitsu guztien parte-hartzea beratzea: zuzendariak, irakasleak, ikasleak, hartzaileak, proiektuan parte hartzen duten gizarte-erakundeetako hezitzaileak, erakunde parte-hartzaileak...

Amaierako sistematizazioa

Proiektuan zehar hausnartutako eta ebaluatutako guztiak, erregistratutako guztiak, azkenean bat egiten du, ixteko eta sistematizatzeko garaian.

Amaierako sistematizaziorako honako jardura hauek komeni dira:

- Esperientzia sintetizatzea: ezaugarri gailenak eta kontaketa antolatzeko ardatz nagusiak identifikatzea, anekdotetan galdu gabe.
- Jardura arrakastatsuenak eta inpaktu positiboak ez ezik, huts egindako esperientziak adieraztea, akatsetatik ikasi eta bide alternatiboak aurkitu direla frogatzeko. Proiektuaren ziurgabetasunak ere erregistratzea komeni da.

Amaierako produktua proiektuaren testigantza bukatua da: txosten bat, karpeta bat, bideo-klip bat, afixe bat, argitalpen bat, irratiko zein telebistako programa bat, webgune bat...

Amaierako sistematizazioa edo sintesia garrantzi handikoa da; izan ere, protagonestentzat oso esperientzia positiboa izan bada ere, erregistro zehatza egin ezean, zaila izango da aintzat hartzea, erakunde-inpaktua lortzea, jarraipena izatea, edota beste batzuek errepikatzea.

Komunitateko beste kide batzuen laguntza eta partaidetza izateko, zehatz-mehatz adierazi behar dugu zertan ari garen lanean, zer arrakasta lortu ditugun, eta zertan lagun dezaketen.

Beste erakunde batzuekin loturak egin badira (gizarte-erakundeekin, enpresekin, emaile partikularrekin zein erakunde ofizialekin) amaierako ebaluazioa eta/edo sistematizazioa helaraztea komeni da, eta egoki izanez gero, jasotako laguntzagatik eskerrak eman. Harreman horietan funtsak jarri bazituen, egindako gastuen xehetasunak adierazi behar dira.

4.- LEGERIARI ETA ARAUDIARI LOTUTAKO ALDERDIAK

Autonomia-erkidegoek gai horri dagokionez askotariko araudia izan arren, alderdi horiek aintzat hartzea interesgarria da, proiektuaren diseinua egiterakoan kontuan izan daitezen.

AINTZAT HARTU BEHARREKO GAIAK

Erantzukizun zibila: gomendatzen da erakundeek kontuan har dezatela eskolako erantzukizun zibileko aseguruaren estalduraren irismena, bai eta gai horren inguruan indarrean dauden araudiak; izan ere, hezkuntzarako eraikinetik kanpo egiten diren beste jarduera batzuetarako kontuan hartzen dira (irteera didaktikoak, koloniak eta abar).

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetan parte hartzen duten ikasle guztiek, salbuespenik gabe, aitak, amak, tutoreak zein legezko arduradunak sinatutako baimena izan beharko dute jarduera hasi aurretik.

Segurtasun-neurriak: ikastetxeak kontuan hartu beharko ditu ikasleak, irakasleak eta gainerako parte-hartzaileak ikaskuntza-zerbitzuko proiektua garatzen den bitartean zaintzeko beharrezkoak diren segurtasun-aurreikuspen guztiak.


Erakunde arteko hitzarmenak: ikastetxeak erabaki dezake beste erakunde batzuekin akordioak egitea, hitzarmenak sinatzea eta harremanak sortzea; horrenbestez, proiektuari sendotasun handiagoa emango zaio eta sare-egitura eratuko da. Hitzarmen horiek prestatzeko hainbat adibide eta eredu aurki daitezke Argentinako argitalpen honetan: "Educación Solidaria. Itinerario y herramientas para desarrollar proyectos de Aprendizaje-Servicio".
http://www.me.gov.ar/edusol/archivos/2011_itinerario.pdf

Parte-hartzea egiaztatzea: Kontuan hartu behar da proiektuaren zer alderdi esleitzen zaizkion curriculum-arlo bakoitzari eta zer eragin duten azken kalifikazioan. Halaber, interesgarria izan daiteke egiaztagirak edo diplomak sortzea, ikastetxeak ziurtatutako ematea ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat garatu izana egiaztatzen dutenak.

Halaber, ikastetxeek partaidetza-ziurtagiria eman ahal izango dio jardunbide solidarioetan laguntzen borondatez parte hartu duen pertsona orori, irakasle izan edo ez izan.

Zenbait dokumentazio-iturri

Bofill fundazioak eskola-orduetatik kanpo egindako jardueren legezko erantzukizunei buruzko dokumentu bat argitaratu du, zenbait legezko xedapen eta prozesu horietako erantzukizun-mailak jasotzen dituenak. Dokumentu hori kontsultatzea komenigarria da. Halaber, autonomia-



erkidego bakoitzak arlo horretan emandako xedapen eta orientabideak kontuan hartu behar dira, bai eta boluntarioei buruzko legedia.

Les responsabilitats legals en les activitats educatives realitzades més enllà del temps lectiu.

Neus Soriano, Ramon Plandiura, Eva Izquierdo. Fundació Bofill. Bartzelona, 2009

<http://www.fbofill.cat/intra/fbofill/documents/publicacions/499.pdf>

Era berean, interesgarria da boluntarioen gaietan espezializatutako webgune batzuk kontsultatzea. Esate baterako:

- Espainiako Boluntariotza Plataforma : <http://www.plataformavoluntariado.org>
- Euskadiko boluntariotzari buruzko webgunea : <http://www.boluntariotza.net/es/menu.html>


5.- BESTE GIZARTE-ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZAN. SARE-LANA

ZERBIKASen 1. gidatik³ honako alderdi hauek azpimarratzen dira, aholkulariak aintzat hartu beharrekoak, beste erakunde batzuekiko lankidetzari dagokionez.

ikaskuntza-zerbitzuko proiektu gehienek eskatzen dute hezkuntza-erakundea harremanetan jartzea zerbitzua garatuko den errealitatearekiko lotura bideratuko duen gizarte-erakundea batekin; hartara, lortu nahi den ikaskuntzaren zati bat bultzatuko da. Eskuarki, ez eskolan, ez hezkuntza ez-formala garatzen duten erakundeetan ezin dute ikaskuntza-zerbitzuko proiekturik gauzatu laguntzarik gabe.

Horregatik, oinarrizkoa da lankidetzaz-erlazioak sortzea, funtsezkoa da sare zabalago eta trinkoagoak ehuntzea, hezkuntza-erakundeetatik haratago, lankidetzaz bideratzeko eta herri hezitzailea egi bihurtzeko.

Baina, ez da batere erraza hezkuntza-erakundearen eta gizarte-erakundearen artean lankidetzaz-harremanak sortzea, elkarrekin ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzeko. Ondoren adierazitako urratsak, bederen, aintzat hartu behar dira.



1. Komunitateko gizarte-erakundearen mapa egin.
2. Zer lankidetzaz-maila gauza daitezkeen aztertu.
3. Lankidetzaz-akordioak lortzeko aukerak aztertu.

Lankidetzaz jardun dezaketen gizarte-erakundeak identifikatu

Egin nahi den proiektuaren zirriborroa egin ondoren, aurreikusitako zerbitzu-mota gauzatzen hobekien lagun dezaketen gizarte-erakundeak bilatzeari ekin behar zaio. Ezaugarri horiek dituen erakunderik ez badago oraindik, eskuratu ditugun ezaupideak erabili beharko ditugu edo laguntza eskatu beharko dugu erakunde egokiena bilatzeko.

Gure herrialdean administrazioei lotutako hainbat gizarte-erakunde daude, ikaskuntza-zerbitzuaren inguruko hezkuntza-proposamenak dituztenak. Lehen urratsa batek zein besteak emanda ere, norekin lankidetzaz jardun nahi den identifikatu ostean, topaketa bat adostu beharko da. Lehen harreman hori, lankidetzaz-prozesuaren gainerako urratsen modura, askoz ere errazago izango da ikaskuntza-zerbitzurako elkargune bat gertu izanez gero, hark bitartekari- eta bideratzaile-zereginak beteko baititu.

³ Josep Maria Puig, Xus Martín eta Roser Batlle. *Cómo iniciar un proyecto de Aprendizaje-Servicio* gidaliburua. Zerbikas Fundazioa, Bilbo, 2007.

Eskaera planteatu eta akordioa lortu

Lankidetzak-akordio bat lortu aurretik, lehenengo urratsa da hezkuntza-erakundeak gizarte-erakundeari egiten dizkion eskaerak azaltzea; hau da, ikaskuntza-zerbitzuko proiektua arrazoitzea eta gizarte-erakundeak bete beharreko eginkizunen berri ematea. Proposamena argitu ondoren, gizarte-erakundeak erabaki behar du proposamen hori onartzeko moduan ote dagoen. Horretarako, egiaztatu behar du eskaera bat datorrela erakundearen helburuekin, ohiko eginkizunean laguntzaren bat izango ote duen ikusi behar du (ez da ahaztu behar neska-mutilek zerbitzu baten ardura hartzea dela kontua) eta prozesu guztian dagokion zatia egiteko baliabide eta azpiegitura nahikoak dituela egiaztatu behar du.

Erantzun guztiak baieztatu izanez gero, lankidetzak-akordioa egin behar da. Dokumentu horretan, lankidetzan jarduteko borondatea adierazteaz gain, prozesuan zehar hezkuntza-erakundeek zein gizarte-entitateek beren gain hartuko dituzten konpromiso zehatzak jaso behar dira.

Sare-lana⁴

Ikastetxearen eta komunitateko erakundearen arteko lankidetzak sare-lanaren kontzeptura hurbilazten gaitu. Sare-lana ikastetxearen eta komunitateko eragilearen arteko harremanetan eta lankidetzan jarduteko modua da.

Sare-lanaren funtsezko printzipioetako bat aldean osagarritasuna da: erakunde, ellarte eta kolektibo batzuek beste batzuentzat baliagarriak diren gaitasunak dituzte. Horrenbestez, ahalmenak biderkatzen dira, norberaren baliabideak aprobetxatzen dira, bai eta besteenak ere.

Ikaskuntza-zerbitzuaren kasuan, bi helburuk bideratzen dute partekatzea: oinarritzko gaitasunak ikastea eta komunitateari zerbitzu ematea. Bi elementu komun horiek proposamen batzuei ekiteko aukera ematen dute. Proposamen horietan komunitatea, oro har, komunitate hezitzailetzat hartzen da, eta testuinguru, hiri, auzo eta herri guztiak herri hezitzaile gisa hartzen dira.

Komunitateak eta erakundeek ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetan parte hartzea abiapuntu egokia izan daiteke guztien interesari erantzuteko ekintzetan lankidetzan jarduteko, ikastetxeko ikasleak hezteko, sostengatzea eta hezkuntzan laguntzea barne hartuta.

Ebaluazio iraunkorra, egiten dena eta nola egiten den etengabe begiratzea, kolektiboki eragindako emaitzak aztertzea... Horrenbestez, hobekuntza bideratzen da, hobeto egiten da, eraginkortasun handiagoz, baliabideak hobeto aprobetxatuz, eta parte-hartzaileen gogobetetzea handiagoa da. Sare-lanean ebaluazioa ez da izapide gogaikarri bat, hobetzeko aukera baizik.

⁴ Fernando de la Riva eta Antonio Moreno (2010) *Redes Asociativas*. Esplai-EDEX Fundazioa.

6.- BALIABIDEAK

IKASKUNTZA ETA ZERBITZU SOLIDARIOARI BURUZKO LIBURUAK

Cathryn Berger Kaye, M.A. (2004). *The complete Guide to Service Learning*. Minneapolis. AEB.

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei (2010). *¡Practica APS! Guía práctica de aprendizaje-servicio para jóvenes*. Bilbao Zerbikas Fundazioa. www.aprendizajeservicio.net

MARTÍN, X. eta RUBIO, L.: *Experiències d'aprenentatge servei*. Bartzelona, Octaedro, 2007.

Martin Garcia, Xus eta Rubio Serrano, Laura (koordinatzaileak) 2010. *Prácticas de ciudadanía. Diez experiencias de Aprendizaje-Servicio*. Octaedro. Bartzelona.

Argentinako Hezkuntza Ministerioa. *Orientaciones para el desarrollo institucional de propuestas de enseñanza sociocomunitarias solidarias*.

http://www.me.gov.ar/edusol/archivos/2011_orientaciones.pdf

PUIG, J. M.; BATLLE, R.; BOSCH, C. eta PALOS, J.: *Aprendizaje-Servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona, Octaedro, 2007 (lehengo argitalpena katalanez, 2006).

Puig, J. M. (2009). *Aprendizaje y servicio. Educación y compromiso cívico*. Bartzelona. Grao.

Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje-Servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona. Octaedro.

Puig Rovira, J.M. (2011) *Com Fer APS en els centres educatius?* Centre Promotor d'Aprenentatge Servei. Bartzelona www.aprenentatgeservei.org

Puig Rovira, J.M. (2011). *Com impulsar L'ApS a l'ambit local?*

http://www.aprenentatgeservei.cat/intra/aps/documents/aps_ambit_local_web.pdf

Puig Rovira, J.M. (2011). *Com fer ApS en les entitats socials?*

http://www.aprenentatgeservei.cat/intra/aps/documents/aps_entitats_socials_3.pdf

Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Buenos Aires. Ciudad Nueva.

Beste batzuk

CLAYSS- PriceWaterhouseCoopers. 2005. *Microemprendimientos educativos solidarios*.

http://www.clayss.org.ar/04_publicaciones/preedu-libro2.pdf

CLAYSS-NATURA. 2012. *Siete historias inspiradoras en educación*.

http://www.clayss.org.ar/natura/siete_historias_inspiradoras_en_la_educacion/index.html

Derecho a la participación de niños, niñas y adolescentes.

http://www.unicef.org/republicadominicana/uniCef_proyecto.pdf

Manual para docentes y estudiantes solidarios.

http://www.clayss.org.ar/archivos/natura_10_web.pdf

Manual de Aprendizaje-Servicio. Txileko Gobernua. 2007.

<http://www.mineduc.cl/biblio/documento/200710091359040.MANUALA+Sfinal.pdf>

Participación Ciudadana

<http://www.globalinfancia.org.py/uploads/Pdf/participacion-ciudadana.pdf>

Hezkuntza solidarioari buruzko programa nazionala. Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia Ministerioa. Argentina. *10 Años de Aprendizaje y Servicio Solidario en Argentina.* 2007

http://www.me.gov.ar/edusol/archivos/2007_libro_10.pdf

HEZKUNTZAREN ZENBAIT ALDERDIRI BURUZKO LIBURUAK

Bolibar, A. (2008): *Ciudadanía y competencias básicas.* Bartzelona. Grao.

Escudero Muñoz, Juan M. eta Moreno Olmedilla, Juan M. *El Asesoramiento a Centros Educativos.* Madrilgo Erkidegoa. Madril.1992.

Johnson, D. eta Johnson, R. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula.* Bartzelona. Paidós.

Puig, J. M. eta Martin, X (2007): *Competencia en autonomía e iniciativa personal.* Madril. Alianza.

Roegiers, X. (2007). *Pedagogía de la Integración. Competencias e integración de los conocimientos en la enseñanza.* Coordinación Educativa y Cultural Centroamericana (CECC).

Roegiers, X. (2006) *¿Qué es el EPC? Enfoque por las competencias y pedagogía de la integración explicadas a los educadores.* Centro Cultural y de Cooperación para América Central-CCCAC. Frantziako enbaxada, San José, Costa Rica.

ZENBAIT AUTORE. *El profesorado Consultor. Su fundamento. Sus funciones. Su Práctica.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.1995.

Villa Sanchez, A. eta Villar Angulo, A. (1992) *Clima organizativo y de aula. Teorías, modelos e instrumentos de medida.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Villa Sanchez, A. eta Morales Vallejo, P. (1993) *La Evaluación del profesor.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Villa Sanchez, A (koordinatzailea) (1992) *Autoconcepto y Educación.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Zabala, A. eta Arnau, L. (2007) *11 ideas clave. Cómo aprender y enseñar competencias.* Bartzelona. Grao.

Yntxausti, Endrike eta Otano, Luis. (1997) *Guía para la elaboración del Proyecto Educativo de Centro. Orientaciones para la Educación Infantil, Primaria y Secundaria*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

ELKARTEENTZAKO KOADERNO PRAKTIKOAK:

Bustos, Cristina; Moreno, Antonio (2010) *Los Equipos*. Fundación Esplai-EDEX

Casado, Francisca; Gómez, Lita (2010) *Liderazgo Asociativo*. Fundación Esplai-EDEX

De la Riva, Fernando; Solo de Zaldivar, Pablo (2010). *Las reuniones*. Fundación Esplai-EDEX

De la Riva, Fernando; Moreno, Antonio (2010) *Redes Asociativas*. Fundación Esplai-EDEX

Gómez Terrón, Lita; Moreno, Antonio (2010) *Comunicación Asociativa*. Fundación Esplai-EDEX

<http://www.boluntariotza.net/es/ong.html>

Paradas, Carlos; De la Riva, Fernando (2009). *Los Proyectos*. Fundación Esplai-EDEX

ZERBIKAS GIDAK

Rubio, L. (2008). **Zerbikas 0 gida**: *Ikasketa eta zerbitzu solidarioa. Sakelako gida*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Puig, J. M.; Martín X. (2007). **Zerbikas 1 gida**: *Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Hernández, C.; Larrauri, J.; Mendiá, R. (2009). **Zerbikas 2 gida**: *Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarritzko gaitasunak garatzea*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Mendiá, R; Moreno, V. (2010). **Zerbikas gida 3**: *Ikasketa eta zerbitzu solidarioa, gizarteratzeko estrategia*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Mendiá, R. (2011). **Zerbikas gida 4**: *Ikasketa eta zerbitzu solidarioa, ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzeko*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Mendiá, R. (2012). **Zerbikas gida 5**: *Ikasketa eta zerbitzu solidarioa, ikasketako proiektu integratua*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

WEB-ORRIAK

ZERBIKAS Fundazioa (Euskal Herria): www.zerbikas.es

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei (Katalunia): www.aprenentatgeservei.org

CLAYSS (Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario), Argentina: www.clayss.org

EDUTEKA. Portal Educativo gratuito de la Fundación Gabriel Piedrahita Uribe (FGPU), Colombia: www.eduteka.org

Escoles Compromeses amb el Món: www.escolescompromeses.org

Global Changemakers: www.global-changemakers.net

In Our Global Village: inourvillage.whatkidscando.org/global_village_project.html

Learn and Serve America's (USA): www.servicelearning.org

National Youth Leadership Council (USA): www.nylc.org

Red Española de Aprendizaje-Servicio: www.aprendizajeservicio.net

Youth Action Net: www.youthactionnet.org

Youth Venture: www.genv.net

Charo Batlleren bloga: www.roserbatlle.net

Kantabriako ikaskuntza-zerbitzuko taldea: www.apscantabria.tk

Dos Mares proiektua: www.dosmares-aps.es

Madrilgo talde sustatzailea: www.apsmadrid.blogspot.com.es

Ikaskuntza-zerbitzua unibertsitate-eremuan sustatzen duen taldea: www.ub.edu/aps/apsu

BIDEO-KANALAK

YOUTUBE

- Youtuben ikaskuntza-zerbitzuari buruzko hainbat bideo daude. Bilatu "aprendizaje-servicio" erabiliz eta aurkituko dituzu.
- CLAYSS kanalaren bidez ere eskura ditzakezu.
- Youtubeko bilatzailean "Emprendimiento Social Juvenil" jarri gero, Bertelsmann fundazioaren kanalean sartuko zara. Gizarte-ekintzailetzako esperientzia eta proiektuei buruzko hainbat bideo daude, ikaskuntza-zerbitzuko proiektuekin lotura estua dutenak.

I. ERANSKINA:

**IKASKUNTZA-ZERBITZUARI
BURUZKO ATARIKO TAILER
BAT IRAKASLEENTZAT**

**TAILERRA PRESTATZEKO
MATERIALAK**

1. saioa

15 minutu	Saioaren helburuak, edukiak eta programa azaltzeko une egokia da. Halaber, ordutegiari buruzko zehaztasunak eman, kontsultarako materialak aurkeztu eta fotokopiatutako materialak banatu behar dira.
45 minutu	Girotzeko talde-ariketa. Talde osoak batera egin dezake, oso handia ez bada; bestela, lau parte-hartzailek osatutako talde txikietan egin daiteke. <i>Ikaskuntza-zerbitzuari buruzko oinarrizko kontzeptuak gogora ekartzea</i> María Nieves Tapia eta Charo Batlle ikertzaileen bideoak ikusten dira, ikaskuntzaren eta zerbitzuaren esanahia gogoratzen ahalaegintzeko. Hartara, erreferente akademiko osoa eta komuna izango dugu (ikus baliabideen atala). Ondoren, hiru pertsonen osatutako lantaldeak antolatuko dira, eta bosat minutu izango dituzte 12 hitz inguruko definizio propio bat osatzeko, parte-hartzaile guztientzat ulergarria eta erabilgarria izan behar duena. Definizioak partekatu eta kontrastatzen dira. Halaber, hezkuntza-jardunbide baliotsuak hizkuntza xumea erabiliz ere komunikatzen jakiteak duen garrantzia azpimarratzen da.
30 minutu	<i>Eragiteko talde-ariketa</i> “Liceo Colonia Nicolich de Uruguay” Power Pointa edo interesgarritzat hartutako besteren bat proiektatzen da ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bateko prozesuak argitzeko. Parte-hartzaileei proposatzen zaie proiektzioan “prozesua” aintzat hartzeko. Zer bide hartzen du ikastetxe horrek bere proiektua eraikitzeko? Talde txikitan, faseak eta prozedurak identifikatu behar dira. Taldeen hausnarketak batera jartzen dira, faseak bereizten ahaleginduz. 1.- ERREALITATEAREN AZTERKETA .- Gizarte-premiak detektatzeko tresnak eta prozesuak .- Inkestak egitea eta aplikatzea .- Arazoak identifikatzea 2.- ZER EGIN GIZARTE-ARAZO BAT DAGOELA EGIAZTATUZ GERO 3.- EKINTZA NON GAUZATU 4.- HELBURUAK 5.- PROIEKTUAREN DISEINUA 6.- INFORMAZIOA BILATZEA ETA PERTSONA GARRANTZITSUREN BAT GONBIDATZEA, INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO 7.- PROIEKTUAREN GARAPEN PRAKTIKOA 8.- KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA 9.- SORTZEN DIREN ARAZOIEI KONPONBIDE BURUTSUAK EMATEA

30 minutu	Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia aurkeztea - Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen metodologiari buruzko aurkezpen batean oinarritutako azalpena. Beste hauek era proiektu daitezke: ZERBIKASen 1. gida, "Practica ApS!" ikaskuntza-zerbitzurako gazteentzako gida, "Fes ApS!" edota "Ekin I+Zri!", parte-hartzaileekin elkarriketa hasteko. - Proiektzioak irauten duen bitartean, parte-hartzaileei eskatzen zaie beren esperientzian gertatutako adibideak emateko, proiektzioan ageri diren etapa edo fase batzuk argitzeko. 1.- PROIEKTUA PRESTATZEA 1.1.- Zirriborrea egitea 1.2.- Gizarte-erakundeekiko harremanak 1.3.- Proiektua planifikatzea 2.- PROIEKTUA GAUZATZEA 2.1.- Taldearekin prestatzea 2.2.- Taldearekin gauzatzea 2.3.- Taldearekin ixtea 3.- PROZESU GUZTIA EBALUATZEA 3.1.- Ebaluazio multifokala 3.2.- Proiektuak arrakastatsuak izateko konklusio eta giltzarri batzuk
-----------	--

2. saioa

15 minutu	Ikaskuntza-zerbitzuko esperientzia baten azterketa talde handian (ikastetxeari dagokion hezkuntza-etaparen arabera). Adibidez: "Toquem fusta" - Esperientziaren bideoa proiektatzen da. - Gizarte-premia, ikaskuntza eta zerbitzua identifikatzen dira, bideoa oinarri hartuta. - Bideoan ikusten diren etapa metodologikoak identifikatzen dira, eta bertan ageri ez direnak ondorioztatzen dira. Parte-hartzaileei eskatzen zaie nola bideratuko lituzketen azaltzeko.
30 minutu	Banakako hausnarketa eta taldean partekatzea Parte-hartzaileei eskatzen zaie 10 minutuko banakako hausnarketa egitea honako gai hauei buruz: - Lurraldeko institutueta eta gazteen erakundeetan egindako zer aurrekari arrakastatsu dituzten gogoan, eta zein izan zen arrakasta haienen giltzarria. - Gaur egungo zer gizarte-premietan lan egin dezakete gazteek. Jorratutakoa oinarri hartuta, partekatu, landu eta eztabaidatzen da: - Aurrekari arrakastatsuen zerrenda, eta proiektuen arrakastaren giltzarriak. - Gizarte-premien zerrenda bat.
30 minutu	Taldekako lana, "Zirriborroa egitea" fasea oinarri hartuta. Parte-hartzaileak, hiruzpalau pertsonen osatutako taldeetan, beharren diagnostikoa eta proposamenak egiteko ariketa lantzen dute. Horretarako, Zerbikas 1 gida kontsultatu behar dute (6. eta 7. orrialdeak), eta gero urrats hauek eman behar dituzte: 1. Gizarte-premia bat aukeratu 2. Erabaki haurren edo gazteen esku dagoen zer zerbitzuko erantzungo lioken premia horri 3. Zerbitzu hori zer ikaskuntzarekin lot daitekeen pentsatu Jorratutakoa oinarri hartuta, partekatzen da, eta proposamen guztien interesa eta bidegarritasuna eztabaidatzen dira.
30 minutu	Esperientzia baten analisisa; esate baterako, "Conecta joven" a. Esperientziaren bideoa proiektatzen da, eta talde handian identifikatzen da proiektu horrek dakarren sare-lana, bai eta haren abantailak eta mugak ere. b. Parte-hartzaileak aurreko lanerako egindako talde berdinetan banatuta, giltzarritzko faktoreen zerrenda bat egiten dute, zirriborroan aurkeztutako proposameneko sare-lanak funtziona dezan. c. Jorratutakoa oinarri hartuta, partekatzen da, eta lantalde bakoitzak egindako zerrendak eztabaidatzen dira.
15 minutu	Saioaren ebaluazioa

SAIOAK PRESTATZEKO MATERIALAK

1.- Prestatzailearentzako euskarri teknikoa

1. Ikasketa eta zerbitzu solidarioa. Zerbikas gida 0 (euskaraz eta gaztelaniaz)
2. Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat. Zerbikas gida 1 (euskaraz eta gaztelaniaz)
3. Aprendizaje-Servicio. Educar para la ciudadanía. Bartzelona. Octaedro, 2007. Puig, J.M.; Batlle, R.; Bosco, C. eta Palos, J.
4. RAS. Revista de Aula Social, 35. zenbakia. 2008. Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Institutua. 2008 (euskaraz eta gaztelaniaz)
5. Cuadernos de Pedagogía, 2006ko maiatza. 357. zenbakia
6. ZERBIKASen web-orria: [http:// www.zerbikas.es](http://www.zerbikas.es)
7. Charo Batlleren bloga: <http://roserbatlle.wordpress.com/>

2.- Parte-hartzaileei erakusteko

1. Zerbikas gidak: 0 eta 1.
2. Aprendizaje-Servicio. Educar para la ciudadanía. Bartzelona. Octaedro, 2007. Puig, J.M.; Batlle, R.; Bosco, C. eta Palos, J.
3. Cuadernos de Pedagogía, 2006ko maiatza. 357. zenbakia
4. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen metodologiari buruzko Power Pointa.
5. ANDANDO BAJITO proiektuari buruzko Power Pointa. Liceo Colonia Nicolich. Uruguay. 2007.
6. La Caixa eta Conecta Joven Bideoak eta Power Pointa (Esplai fundazioa).

3.- Parte-hartzaileei banatzeko

1. Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat (argitalpena zein fotokopia).
2. Artikulua: *El Aprendizaje-Servicio dentro del currículo*, Eduard Rovira Masachs. Revista Aula de Innovación Educativa, 129. zenbakia. 52-54 or.
3. 3 urratseko ariketa: beharrak – zerbitzua – ikaskuntzak.

4.- Ekipo-treanak eta logistika

1. Ordenagailu multimedia, proiektagailua, pantaila.
2. Arbela eta beste tresna batzuk, eztabaidetan giltzarritzko gaiak adierazteko. Papelografoa.

II. ERANSKINA

ERREFERENTZIAZKO ADIBIDEAK IKASKUNTZA- ZERBITZUAREN ALORREKO JARDUNBIDEAK IDENTIFIKATZEKO

1. Beste mailetako neska-mutilei laguntzeko ekintza edo proiektuak

Ikastetxe batzuetan goiko mailetako ikasleek beheragoko mailetako neska-mutilei laguntzen diete, irakurtzen eta idazten ikasteko prozesua sostengatzea eta sendotzea helburu hartuta. Beste kasu batzuetan, berandu eskolatutako ikasleei laguntzen diete. Neska-mutil horiek etorkinak izaten dira, eta kidekoak behar dituzte ahozko hizkuntzan moldatzeko.

- Lot al daitezke jarduera horiek curriculum akademikoaren alderdiren batekin?
- Jarduera hori lot al daiteke, nahita, oinarritzko gaitasun batzuekin, balio batzuekin, edota komunikatzeko gaitasunarekin?

2. Berariazko kanpainen garapena

Ohikoa da ikastetxe askok berariazko kanpainak gauzatzea gobernuz kanpoko erakunderen baten proiektuari loturik, edota berariazko programaren baten bidez. Adibidez: Eskolako Agenda 21; janariak biltzea edo jarduerak gauzatzea; merkatu txiki, azoka, feria, jaialdi eta abar egitea; zahar-etxe batean jarduera bereziak gauzatzea; gaixoak bisitatzea edo etorkinei harrera egitea; bide-hezkuntzako kanpainak; gosearen aurkako kanpainak; tapoiak, latak, telefono mugikorrak eta abar biltzea...

Bistakoa da ideia eta ekintza egokiak direla, eta solidaritateari lotutako balio garrantzitsuak sustatzen dituztela.

- Ekimen horiek planteatzea al daitezke curriculum-ikaskuntzaren ikuspegitik?
- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu izan al daitezke?

Curriculumarekin eta bereziki oinarritzko gaitasunekin lotzeko konexio eta ikaskuntzak bilatzen dira.

3. Pedagogia aktiboko esperientziak

Ikastetxe batzuek zenbait ekimen gauzatzen dituzte: pedagogia aktiboko esperientziak, proiektuen bidezko ikaskuntza, landa-lanak zein eskola-ikerketak, edo hainbat adimenen ikuspegitik lan egiten dute, edo eskola-trukeak egiten dituzte, edota premia gehiago dituzten beste herrialde batzuetako eskolekin hezkuntzaren alorreko posta-trukeak egiten dituzte.

- Proiektu horietako bat fokatu al daiteke gizarte-erabilgarritasunaren ikuspegitik, komunitatearen, auzoaren, herriaren, nolabaiteko gabeziak dituen kolektiboren baten zein garapen-bidean dauden herrialdeetako komunitateren baten egoera hobetzeko?
- Irakaskuntza-ikaskuntzako sistema horiek gizarte-premien egoerei lotuz gero, ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bihurtu al daitezke?

Proiektuek errealitateari buruzko ikuspegi eraldatzailea izan behar dute, asistentziari dagokion dimentsiora mugatu gabe. Esate baterako, ingurumena hobetzeko proiektu bat, errealitate praktikoa oinarritzen den bide-segurtasunari buruzko proiektu bat, pertsona adinduen bizitza hobetzen duen proiektu teknologiko bat... komunitatearen eta pertsonen egoera hobetzen duten proiektuak dira, eskola eta komunitatea eraldatzen dute, lankidetzaren bidez.

4. Ikasleek parte hartzeko esperientziak

Aukera guztiak agortzeko asmorik gabe, ikasleek parte hartzeko hainbat esperientzia egiten dituzte berariazko curriculum-arloen esparruan, edota ardurak banatzen dituzte ikasgelan, zikloan, etapan, ikastetxean...

Zenbait kasutan baliteke ikaskuntza-erkidegoek, ikastetxeko proiektu global gisa hartuta, ikaskuntza-zerbitzuko ekimenak garatzea, beren eskolako dinamikan zein partaidetzarako proiektu globaletan txertaturik. Proiektu horiek oinarritzko gaitasunekin lotu eta ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bihur daitezke, eta horrenbestez, ikasleekin garatu nahi diren ikaskuntzak nahita ezarriko dira.

III. ERANSKINA

**HEZKUNTZA-JARDUNBIDEAK
IKASKUNTZA-ZERBITZURA
BIDERATZEKO
AHOLKULARITZARAKO
IKUSPEGI BATZUEN ZENBAIT
ADIBIDE**

Ondorengo lerroetan aurkeztuko ditugu gauza daitezkeen proiektuen zenbait adibide:

Natura- eta gizarte-ingurunearen ezaguerarako proiektuak

Gizarte- eta natura-zientzien esparruko proposamenetako bat *Ingurumena ezagutzeko proiektu* gisa zehatz daiteke, eta ikaskuntza horren haritik, komunitatea eraldatzeko konpromisoa sor daiteke.

Gizarte-zientzien arloko proiektuak

Gizarte-zientzien arloan, hezkuntzaren porrotari buruzko ikerketa egitea proposa daiteke, irakurtzeko eta idazteko arazoak porrot horren arrazoietakoa bat direla aintzat hartuta, eta Lehen Hezkuntzan eta hezkuntza indartzeko jardueretan irakurketa sustatzeko jardueren garapena bultzatzea daiteke, bai eskolako liburutegian, bai guneko publikoetan, esate baterako, auzoko liburutegian edo auzo-etxean.

Natura-zientzien arloko proiektuak

Natura-zientzien arloan, eskolako, auzoko zein herriko populazioaren elikadura-ohiturei buruzko ikerketa egin eta gai hauen inguruko kanpainak gauza daitezke: pertsonen nutrizio-premiak, gosari osasungarriak, bazkari osasungarriak, askariak eta afariak.

Bestalde, honako gai hauek ere azter daitezke: elikagaien bankuen zeregina, banku horien izateko arrazoia, eta krisialdi ekonomikoan dagoen gizarte batean elikatzeko dauden arazoak. Hortik aurrera, elikadura osasungarria hedatzeko hainbat ekimen egin daitezke, edota elikagaien bankuetarako janari-bilketak, elikadura orekatuari eusteko komenigarrienak hautatuz.

Arte- eta komunikazio-proiektuak

Arte-arloari eta hainbat esparrutako (arte, kultura, komunikazioa...) gaitasunei lotutako proiektuak oinarri hartuta, hainbat ekimen gauza daitezke: lorategi eta parkeetan idazkunak jartzea, kaleen izenak Braille sistemaren bidez idaztea auzo guztian edota udalerriko zenbait gunetan, eraikin enblematikoei buruzko azalpenak sortzea, edota auzoko plano bat egitea, ekipamendu adierazgarriak non dauden zehaztuta, toki-erakunderen baten laguntzarekin paperea zein webgune batean argitaratzeko.

Proiektu teknologikoak

Ikuspegi teknologikotik, aintzat har daiteke pertsona adinduei eta desgaitasunen bat dutenei laguntzeko gailuen diseinu sortzaile eta teknologikoa, zenbait tresna garatzeko eta egiteko. Esate baterako: orrialdeak pasatzeko tresnak, objektuak apaletatik hartzeko eta uzteko pintzak, etxean egindako alarma-gailuak eta abar.

Halaber, energia alternatibo jakin batzuk aprobetxatzeko asmakariak, eta energia, ura eta abar aurrezteko tresnak asmatzea daiteke.

Gazteen protagonismoa eta herritartasunaren eraikuntza

Gizarte- eta herritar-gaitasunen garapena zenbait ekimenen bidez gauza daiteke. Auzoko edo herriko haurren eta gazteen errealitatearen analisiaren ondorioz, herritartasuna garatzeko hainbat ekintza sor daitezke, gazteen protagonismoan oinarrituta. Adibidez: gazteleku,

aisialdiko talde, ludoteka eta abarretan parte-hartzea hobetzea; auzoko haurren eta gazteen premiak biltzea, eta toki-agintariei aurkezteko eta entregatzeko ekitaldia egitea; gazteek haientzako jarritako organoetan parte hartzea (Hezkuntza Kontseiluan, Ikasle Kontseiluan, Gazteriaren Kontseiluan, kirol-erakundeetan, tokiko irratian, aldiakari batean, web-orri batean...), betiere hobetzeko bideak proposatuz eta egoerei aurre egiteko jardueretan parte hartuz.

Diziplinarteko eta/edo aukerako guneak

Hiruhilekoan zehar, egun jakin batzuetan ikastetxeko ikasleek diziplinarteko proiektuak garatzen dituzte, gizarte-intereseko gai bat ardatz hartuta, eta egoeraren bat hobetzeko ekintza sortzen dute (hobekuntzak ikastetxean, harremanetan, bullyingaren aurkako borroka...).

Praktika solidarioak

Hezkuntza Kontseiluaren eta guraso-elkarteen adostasuna izanez gero, proposa daiteke DBHko 3. eta 4. mailako edo Batxilergoko ikasle guztiek praktika solidarioak egitea ordu batzuetan, eta hausnarketa-ekintza prozesu baten bidez, komunitatea hobetzeko planak sortzea.

Ingurune-planak

Komunitate batzuetan INGURUNEKO HEZKUNTZA-PLANAK ezarri dira, eta ekimen horrek *komunitate guztiaren inplikazioa* dakar. Horrenbestez, gizartea, erakundeak, elkartek eta ikastetxeak, besteak beste, tartean daude. Plan horien ezaugarri nagusia *eragile guztien baterako erantzukizuna* da. Oso ondo egituratutako sare baten bidez lan egiten da, hezkuntza zeregin partekatua izan dadin.

Gai bereziak daude, hizkuntzaren edo zientziaren esparrutik haratago daudenak. Esate baterako, **bide-hezkuntza eta ingurumen-prestakuntza**. Baliteke neska-mutilek berariazko gai horietarako esparru berezia behar izatea, bai eta ezagutza modu zehatzagoan transmititzeko gai diren espezialistak ere. Horrenbestez, komunitateko udaltzainak tartean sartzen dira, egun batean gazteei azaltzeko bide-hezkuntzaren garrantzia zertan datzan, edota ingurumen-alorreko espezialistak bertaratzen dira, energia berriztagarriari buruz hitz egitera.

Beste kasu batzuetan, *merkatariak* inplikatzeko dira, bidea zeharkatzeko duten haurrak zaintzeko. Halaber, *gurasoek eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea* eskatzen da.

Ingurune-hezkuntza-planak gizarte-dimentsioa du helburu, *hezkuntza ez baitu ordutegirik, ez eta konpartimenturik ere*. Hezkuntza globala *tokiko ekimenen bidez* gauzatzeko ideia abian jartzen da.

Hainbat ekimen daude: *Bide Lagunak*, *Patia neska-mutil guztiona*, *Txikiei laguntzen diet*, *Lorategi bat babesten dugu...*

Ekimen horiek guztiek diziplinartekoak eta erakunde artekoak izateko potentziala dute, eta ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzeko aukera handiak ematen dituzte.

Ikaskuntza-proiektu integratuak

Kasu honetan, irakasle-taldean antolatzen da, ikasleekin batera proiektu bat diseinatzeko. Proiektu horrek ikasgai batzuetako edo guztietako gaiak barne hartuko ditu. Helburua izango da ikasleek erantzuteko modukoa den komunitate-eskaera zehatz bati jarduera solidario baten bidez erantzutea.

Kontuan hartu beharko dira: proiektuan parte hartzen duen arlo bakoitzak zenbat eskola-ordu erabiliko dituen, espazio komunak izateko aukera, eta ikasgai/arlo bakoitza zer urte-garaitan egongo den proiektuari lotuta, ez baita beharrezkoa guztiek aldi berean parte hartzea.

Ikaskuntza-proiektu integratuen adibide batzuk:

Bigarren Hezkuntzako institutu bateko gizarte-zientzietako (Historia) eta arte-hezkuntzako arloen asmoa zen herriko ondare historiko eta kulturala berreskuratzea.

Gizarte-zientzien arloan, ikasleek tokiko historia ikertu zuten, Historia irakasleak orientatuta. Iragan aberats hori berreskuratzeke, museo hezitzailea eta artxibo historikoa antolatu zituzten, familien eta auzokoen laguntzarekin. Ikasleak liburutegian eta informatikako ikasgelan lanean aritu ziren, herriko zenbait interesgune ikertzeko eta fitxa turistikoak biltzeko. Halaber, gidari-lanetan aritu ziren, beste eskola batzuetako ikasleak udalerrira bisitan etortzeko.

Arte-hezkuntzan diseinu grafikoa eta muralismoa landu zituzten, eta ikasitakoa aplikatu zuten, Historian ikusitakoarekin batera, udalerriko historiari buruzko muralak diseinatzeko eta ikasgeletan, eskolako gune komunetan eta auzoko espazio publikoetan jartzeko.

Beste adibide bat:

Alde batetik, Biologia, eta bestetik, Hizkuntza eta Literatura, proiektu komun batean elkarturik, Bigarren Hezkuntzako ikasle batzuek sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentziorako proiektu bat garatu zuten, arriskua dakarten jokabideak identifikatuz, tokiko osasun-zentroarekin lankidetzan.

Ikasleen helburua zen sexu-transmisiozko gaixotasunen arazoari heltzea auzoan. Biologiako ezagutzak aplikatu zituzten, eta auzoko osasun-zentroarekin lankidetzan, auzoan jokabide arriskutsuak identifikatzeko estrategiak definitu zituzten.

Hizkuntza eta Literaturako edukiak landu zituzten (hitzezko azalpena, informazioaren sintesia, bizi izandako esperientziak idatziz kontatzea), gazteek informazioa emateko hitzaldiak antolatu zituzten, prebentziozko jokabideak eta gazte bakoitzari dagokion erantzukizunaren ardura hartzea azpimarratuz.

Berariazko jardunaldien esparruan

Gai zehatz bati buruzko berariazko jardunaldiak egiteak gune zehatza dakar, denboran mugatua. Gune horretan irakasle bakoitzaz, dagokion diziplinatik abiatuta, gaur egungo gizartean garrantzi handikoa den gai bat ulertzeko beharrezkoa den informazioa ematen du.

Gaiari heltzeko berariazko proposamenak planteatzeko tailerrak antolatzen dira, dagozkien ezagutza-alorretako ikuspegiak aintzat hartuta.

Hainbat dokumentazio-iturriekin harremanetan egotea, komunitateko pertsonen parte hartzea, irudiak zein artelanak interpretatzea, eta produkzioaren askotariko aukerak baliatzea izango dira, besteak beste, jardunaldi horietako hezkuntza-eskaintzaren ezaugarriak. Ikaslek,

irakasleen iritziz heterogeneoak izango diren taldeetan, hainbat une eta gunetan parte hartuko dute, irakasleek aldeztu aurretik antolatutako zirkuituetan.

Jardunaldiak amaitzeko, hezkuntza-taldeak jarduerak bat aurreikusiko du, ikasleek bizi dezaten, oro har, jardunaldietan sortutakoa.

Adibide bat:

Bigarren Hezkuntzako institutu batek jardunaldi batzuk egin zituen, Mendebaldeko Saharako biztanleen egoera ezagutzeko, ulertzeko, bizitzeko eta partekatzea helburu hartuta, ikaskideengan solidaritate-korronte bat pizteko, zenbait ekintzetan gauzatzeari begira: elikagaien eta produktuen bilketa, eremuko produktuak eta bildutako beste batzuk saltzeko merkatu txiki bat egitea, Saharan ekintza zehatz bat gauzatzea bideratzeko.

Beste adibide bat:

Bide-segurtasunari buruzko jardunaldia nerabeeek motoak erabiltzen edo autoak gidatzen hasita dauden Bigarren Hezkuntzako zentro batean. Jardunaldia ikastetxean gauzatzen da eta zenbait diziplina eta eduki barne hartzen ditu. Hizkuntza eta Literaturaren arloan inkestak egiten, kazetaritzako artikulak aztertzen, ipuinak dramatizatzen, testuak sailkatzen eta ahoz esaten aritu ziren. Teknologiaren arloan ikerketak egin zituzten Interneten, bide-hezkuntzarako orri-zortzirenak diseinatu zituzten, eta aldizkari digital baten prestaketari ekin zioten. Arte-hizkuntzen arloan, Plastikaren esparruan marrazki-lehiaketa egin eta maketak eta bide-seinaleen kartelak egin zituzten. Gainera, bide-zirkuitu tematiko bat prestatu zuten. Aldi berean, Musikako curriculum-arloan bide-hezkuntzarekin lotutako abestiak sortzen eta dramatizatzen aritu ziren. Jardunaldi horren ondorioz, ikasleak bide-segurtasunaren sustatzaile gisa gaitu ziren udalerrian, eta istripuen prebentziorako ezaupideak eta zirkulazio-arauak hedatu zituzten tokiko zenbait irratiren eta hezkuntzaren alorreko zenbait bitarteko eta erakunderen bitartez.

IV. ERANSKINA:

IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUAK EGITEKO AUKERAK, ARLOEN ETA CURRICULUM-GAITASUNEN ARABERA⁵

⁵ Argentinako Hezkuntza Ministerioko “Orientaciones para el desarrollo institucional de Propuestas de Enseñanzas sociocomunitarias solidarias” dokumentua oinarri hartuta egokitua.

Jakintza-arloa	Ikaskuntza-zerbitzuko zenbait proiektu BIGARREN HEZKUNTZAN	Ikaskuntza-zerbitzuko zenbait proiektu HAUR HEZKUNTZAN eta LEHEN HEZKUNTZAN
Hizkuntza eta Atzerriko Hizkuntza	Irakurketa sustatzea. Hezkuntzan laguntzea, berdin arteko tutoretzak. Tokiko kultura-ondarea babestea. Liburutegi komunitarioak eta liburutegi mugikorrak. Antzerki komunitarioa. Turismoko material, liburuxka eta ibilbideak atzerriko hizkuntzara itzultzea. Hezkuntza-materiala bi hizkuntzatan egitea. Landa-ingurune bateko kontaktak, errezetak eta botikak berreskuratzea. Landa-ingurune zehatz bateko toponimia berreskuratzea. Eskola-irratia. Irakurketarako tutoreak. Hizkuntzetako elkarriketa-tutoreak etorkinentzat.	Irakurketa sustatzea. Alfabetatzea. Hezkuntzan laguntzea, berdin arteko tutoretzak. Liburutegi komunitarioak eta liburutegi mugikorrak. Antzerki komunitarioa. Jatorrizko hizkuntzan egindako kontaktak, errezetak eta botikak berreskuratzea. Sorburuko herrien toponimia berreskuratzea. Liburutegi komuneko liburuak haurrek diseinatutako <i>ex libris</i> bidez sailkatzea eta idazkunak jartzea. Braille eta zeinu-mintzaira ikastea, ikaskideitsu eta gorrak gelan txertatzea errazteko. Liburutegia kalean. Liburuak biltzea eta auzokoak sentsibilizatzea kaleko liburutegien alde. Ipuin-kontalariak eta irakurketarako tutoreak. Hizkuntzetako elkarriketa-tutoreak etorkinentzat.
Gizarte-zientziak	Pobreziaren analisia eta haren ondorioz sortutako egoera zehatzei erantzutea dakarten proiektuak. Historia- eta kultura-ondarea berreskuratzea. Herritarren eta komunitatearen partaidetza. Tokiko tradizioak berreskuratzea eta/edo hedatzea. Belaunaldien arteko elkarriketa eta pertsona adinduei arreta ematea. Bide-hezkuntza.	Pobreziaren analisia eta haren ondorioz sortutako egoera zehatzei erantzutea dakarten proiektuak. Historia- eta kultura-ondarea berreskuratzea. Haurrek komunitate-ekimenetan parte hartzea. Tokiko tradizioak berreskuratzea eta/edo hedatzea. Belaunaldien arteko elkarriketa eta pertsona adinduei arreta ematea. Bide-hezkuntza. Auzoko garbitasunaren egoera aztertzea eta udal-arduradunekin eta auzo-elkarteekin elkarriketatzea konponbideak bilatzeko.

Natura-zientziak	Ingurumena zaintzea. Kutsaduraren prebentzioa eta natura-baliabideen zentzuzko erabilpena. Energia alteenatiboen ekoizpena. Ekoizpenen iraunkortasuna. Hiri- eta landa-eremuetan bizi-kalitatea hobetzea: gune berdeak berreskuratzea, zaborra tratatzea, ikusmenaren eta entzumenaren alorreko kutsadura, natura-baliabideen arazoizko erabilpena (ura, airea, landareak, fauna). Osasunerako hezea eta osasun-kanpainak. Jatearen nahasmenduak eta haurren desnutrizioa prebenitzea edota arazo horiei arreta ematea. Osasuna ikuskatzeko kanpainetan laguntzea. Odola eta organoak emateko kanpainak. Gaixotasunen eta mendekotasunen prebentzioa Osasun-hezkuntza.	Ingurumena zaintzea. Kutsaduraren prebentzioa eta natura-baliabideen zentzuzko erabilpena. Gune berdeak berreskuratzea, zaborra tratatzea, ikusmenaren eta entzumenaren alorreko kutsadura, natura-baliabideen arazoizko erabilpena: ura, airea, landareak, fauna. Osasunerako hezea eta osasun-kanpainak. Haurren desnutrizioa prebenitzea edo arazo horri arreta ematea. Odola eta organoak emateko kanpainetan laguntzea. Osasun-hezkuntza. Orri-zortzirenak, aldizkariak eta web-orriak diseinatzea Eskolako agenda 21en esparruan, ingurumena zaintzeari buruz eskolako ikasleak eta komunitatea kontzientziatzeko.
Matematika	Hezkuntzan laguntzea, berdin arteko tutoretzak. Proiektu solidario bat garatzeko beharrezko datuak konpilatzea eta analisi estatistikoa egitea (osasun-estatistikak, komunitate hartzaileen alde aurretiko ezagutzen diagnostikoa, eta beste batzuk).	Hezkuntzan laguntzea, berdin arteko tutoretzak. Proiektu solidario bat garatzeko beharrezko datuak konpilatzea eta analisi estatistikoa egitea.
Informatika	Berdinei, erakundeei eta hezkuntza-entitatei laguntza informatikoa emateko proiektuak. Informatikaren alorrean hezteko eta gaitzeko proiektuak heldu adinduentzat, teknologia berriak eskura ez dituzten haurrentzat, langabeentzat eta komunitatearentzat, oro har. CiberManagers. Konekta Gaztea. Eskolako txikiei erabiltzaileentzako informatika irakasten hastea.	Berdinei laguntza informatikoa emateko proiektuak. Internet bidezko irratia eta telebista. Eskolako txikiei erabiltzaileentzako informatika irakasten hastea.
Gorputz-hezkuntza	Gizarte- eta kultura-animazioko eta/edo aisialdi-proiektuak. Kirolaren eta aisialdiaren erabilera positiboaren sustapen komunitarioa. Jarduera fisikoaren sustapena haurren, gazteen, bizi-kalitatea hobetzeko. Bizi-jardunbide osasungarriak hedatzeko kanpainak; norbera, besteak eta ingurumena zaintzea. Osasunerako hezteko eta mendekotasunak prebenitzeko proiektuak.	Maratoi edo lasterketa solidarioak. Kirolaren eta aisialdiaren erabilera positiboaren sustapen komunitarioa. Jarduera fisikoaren sustapen haurren, gazteen, bizi-kalitatea hobetzeko. Bizi-jardunbide osasungarriak hedatzeko kanpainak; norbera, besteak eta ingurumena zaintzea. Osasunerako hezkuntzarako proiektuak.

Artea	Hedapen- eta kontziaziazio-kanpainen diseinua: liburuxkak, web-orriak. Premia bereziak dituzten haurrentzako material didaktikoak diseinatzea. Komunitateko erakundeentzat idazkunak egitea. Erakunde, eskola eta ospitaleetan muralak egitea eta zaintzea. Ospitale, geriatiko eta abarrentzat ontziteria, etxeko gauzak eta abar egitea. Komunitatearen zerbitzurako arte- eta kultura-jarduerak.	Hedapen- eta kontziaziazio-kanpainen diseinua: liburuxkak, web-orriak. Komunitateko erakundeentzat idazkunak egitea. Komunitatean muralak egitea eta zaintzea. Udalerriko artelanak zaharberritzea. Komunitatearen zerbitzurako arte- eta kultura-jarduerak.
Komunikazioa	Komunikazio-diseinurako proiektuak onura publikoko erakundeentzat. Tokiko tradizioak berreskuratzeko eta/edo tokiko eta estatuko kultura-ondarea hedatzeko proiektuak. Interes publikoa duten informazio-, hedapen- eta kontziaziazio-kanpainak. Hezkuntzarako irratia eta/edo irradi komunitarioa bultzatzeko proiektuak.	Tokiko tradizioak berreskuratzeko eta/edo tokiko eta estatuko kultura-ondarea hedatzeko proiektuak. Interes publikoa duten informazio-, hedapen- eta kontziaziazio-kanpainak. Hezkuntzarako irratia eta/edo irradi komunitarioa bultzatzeko proiektuak.
Ekonomia eta Administrazioa	Kooperatibak sustatzeko proiektuak. Ekintzailatza solidarioetarako baliabideak lortzeko, kudeatzeko eta administratzeko proiektuak. Proiektzio komunitarioa duten mikro-kooperatibak. Produkzio-proiektu solidarioen plangintza eta administrazioa.	Kooperatibak sustatzeko proiektuak. Ekintzailatza solidarioetarako baliabideak lortzeko, kudeatzeko eta administratzeko proiektuak.
Teknologia – Hezkuntza teknikorako tailerrak	Pertsona adinduei laguntzeko gailuak diseinatzea eta egitea. Energia alternatiboak ekoizteko gailuen diseinua eta instalazioa. Teknologia berriak tokiko produkzioaren alde erabiltzea sustatzea. Produktu teknologikoak diseinatzea, komunitateko bizi-kalitatea hobetzeko. Etxebizitza popularrak, norberak eraikitako eta berritutako etxebizitzak eta etxebizitza prekarioen baldintzak hobetzea sustatzeko programekin lankidetzan jardutea. Erakunde komunitarioetan eta baliabide urriko udalerrietan sistema elektrikoak zein gasarenak eta iturgintzakoak berritzeko zerbitzuak. Ur-baliabideen kalitatea, ingurumenaren kutsadura eta tokiko bizi-kalitatean eragina duten beste aldagai batzuk kontrolatzea.	Produktu teknologikoak diseinatzea, komunitateko bizi-kalitatea hobetzeko. Ur-baliabideen kalitatea, ingurumenaren kutsadura eta tokiko bizi-kalitatean eragina duten beste aldagai batzuk kontrolatzea. Ikasle batzuk material erliebedunak sortzen dituzte, ikaskide itsuei laguntzeko eskolako lanen jarraipena egiten.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako teknologiak	Produkzio-proiektu solidarioak. Baratze hezigarri komunitarioa egiteko proiektua. Ekoizle txikiak sostengatzeko eta gaitzeko proiektuak. Baso-sartzeko proiektuak. Landa-eremuetan bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak: natura-baliabideen zentzuzko erabilpena (ura, airea, lurzorua, landareak, fauna). Proiektu komunitarioa duten mikro-kooperatibak. Ingurumena babesteko proiektuak. Energia alternatiboak ekoizteko proiektuak.	Produkzio-proiektu solidarioak. Baratze hezigarri komunitarioa egiteko proiektua. Baso-sartzeko proiektuak. Landa-eremuetan bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak: natura-baliabideen zentzuzko erabilpena (ura, airea, landareak, fauna). Eskolako arrainontzietan arrainkumeak haztea ibai bateko gune bat edo urmael bat birpopulatzeko. Landareak loreontzi txikietan ereitea, eta hazten direnean eskolako edo auzoko lorategian landatzea.
---	---	---

